

INFERNUAN IDATZIAK

(Frustratuentzako Literatura Zikina)

—18 urtetik gorakoentzat bakar-bakarrik—

JUSTO URDANGA

© Marjinalia Bilduma
© Justo Urdanga
1999. urtea (uztaila)
Lege-Gordailua: SS-770/99

«JOXE MARIEN MUNDURAMA»

«Musikarako belarririk ez duenak, hizkuntzarako ere ez», pentsatu zuen Joxe Marik indiferentzia osoz. Eta indiferentziaz diot, zeren Joxe Mariri bost axola baitzion bere pentsamenduak. «Batzuek», esan ohi zion bere buruari, «euren mokordoak jarriko lizkiakete museo batean, *posteritatearen* gozamenerako».

Xake-jokaldiarekin segitzera zihoala, auzokoaren telebista sartu zitzaion egongelan. «Inbasioa berriro!», pentsatu zuen deiadar batez; «ze kabroia!», marmar egin zuen amorrus. Auzokoak bazekien, ezen, bolumen altua jarriz gero, Joxe Mari bere senetik ateratzen zela. Eta Joxe Marik ere, jakin, bazekien besteak bazekiela. Horregatik egiten zitzaion ulergaitza, erabat, auzokoaren jokaera. «Zezenketa, gainera», esan zuen bere artean zizpuru bat botaz. «Gorra izango ote da, edo kabroitxo bat, eta besterik ez?». Egongelako hormak auzokoarenarekin egiten zuen muga, eta egia esanda, horma eraiki zuena auzokoa baino hamaika bat aldiz kabroitxoagoa, edota gorren aldekoagoa, izan zen. Dударik ez. «Ejem!», hots egin zuen ezgul-itxura hartaz. Eta berriro ere: «Ejem, ejem!».

Sukaldera alde egin zuen, zibilizazio primitibo hartatik babestera. Beste kafe bat prestatzeari ekin zion, goiz hartako seigarrena. Erlojuak ez zeuzkan hamaikak oraindik jota. «Hau kaka bat duk». «Ez», zuzendu zuen. «Hau kaka hutsa duk». Eta pozikago geratu zen, bigarren kakaren alde linguistikoari jatorragoa iritzi ziolako. Eta gogoetan jarraitu zuen: «Zeren, kakak zenbakarriak dituk; ezta? Beraz, zergatik ez dut esango, ba, *hau kaka bat duk?* Bada "*hau*" hau» -jo, jo- barre egin zuen, «zenbatzerik ez dagoelako».

Txistu batzuk entzun ziren. Kafea prest zegoen. Joxe Mari, *uhinen bidez zebilen aparatuari* begira geratu zen, ikaraz. «*Mikrouhinak* esango al da euskaraz?». Jaiki eta hiztegieta begiratzera joan zen. Itzuli zenerako kafea hotzik zegoen. Eta gainera, ez zekien oso ziur nola deitu behar zion. «Ehun bat mila pezeta hiztegitan, eta hitza inondik agertu ez... Akojonantia, hi!». Bat-batean, kakalarri izan eta komunean itxi zen ziztu bizian. *Uhinen bidez zebilen aparatuak* hiru txistu egin zituen sukaldean. Baina Joxe Marik ez zuen ezer entzun. «Berrehun gramo galduko dizkiat, gutxienez, gaurko pisaketan!».

Berriro joan zen egongelara, auzokoaren telebista trumoika sartzen zitzaion arren. Han, ezentzunarena egiten saiatu zen. Telebista piztu eta pelikula erdi-porno bat aurkitu zuen. Masturbatzen hasi zen, gogo handirik gabe baina. «Xelebrea nauk», pentsatu zuen bere betiko gogorik eza hartaz. «Berrogeita hamar urte dizkiat, ezkondata nagok, lau seme-alaben aita nauk eta oraindik masturbatzen jarraitzen diat». Pelikulari begira segitu zuen penaz. «Putateko zaharregia duk. Eta tipoak karikatura zirudik, protesi atomikoa jarrita ere ez litzaiokek altxa izango. Puaj!».

Erreportaje bati lotu zitzaion. «Emakumea: biziaren emaile» titulua zuen. Joxe Marik ez zion tituluari batere zuzen iritzi, zeren, «hori antigoaleko sasi-idea baino ez duk, zientzia oraindik garatzeko zegoenekoan», hasi zen bere buruarekin ozenki arrazonatzen. «Bizia gizonak zekarrek, eta ez emakumeak. Emakumeak hartu egiten dik gizonak dakarren bizia, espermatozoidea alegia. Horixe duk bizirik dagoen gauza bakarra. Emakumeak ez dik bizirik sortzen (bizia espermatozoidea denez), baizik eta biziari (espermatozoideari) toki bat ematen diola, berau gara dadin. Bizi emailea baino, bizi garraiolari, hartzailea dela esatea, zehatzago eta zuhurragoa duk. Jakina, mikroorganismoen mundua, mikroskopioen asmakizuna eta abar, arestiko gauzak dituk; behintzat, historiaren luzerari begira». Obulua, bistan denez, misterio hutsa zen Joxe Marirentzat. Ez buru ez buztan zeukaten sasi-gogoeta zientifiko haiez poz-pozik, telebista itzali eta sukaldera jo zuen berriro, mikrouhinak aparatuan ahaztutako kafearen bila. Une hartan, berriz, telefonoak hots egin zuen eta asmoz aldatu zen.

Telefonoari utzi zion hots egin zezan. Baina ez zuen hartu, tresnari begira geratu zela baizik. Ez hartzea erabakita zeukan. «Auskalo nor den. Nire espermatozoideak izoztu

nahi dizkidan baten bat akaso». Telefonoa isildu zenean, Joxe Mari lurrean eseri eta telefonoa hartu zuen. Txistu luze batek agurtu zuen. «Nik uste, tresnatxo hau Edisonek asmatu zuela. Ez, itxoin. Edisonek argia asmatu zian. Baina telefonoa ere bai, ezta?...». Txistuarekin hizketan jarraitu zuen. «Eup, Edison! Bizi al haiz, motel?».

Gaua zen eta Joxe Mari balkoira agerturik zegoen, pentsaketan. «Ptolomeo eta Aristoteles: zeinen oker zenbiltzaten! Ez al zenekiten, ba, Eguzkia, Lurra eta Galaxia guztiak, NIRE inguruan bueltaka ari direla?». Gero, izarrak sailkatzeari ekin zion, horretarako erabiliz berak asmatutako metodo berri bat. «Izarrak bi multzo handitan sailkatzen dituk: ikusten direnak eta ikusten ez direnak». Aurrera baino lehen, begia zerurantz jaso zuen; eta, une hartan hegan zihoan hegazkin bateko posizio-argiak ikusi zituen. «Joño!», hots egin zuen. «Hirurgarren multzorik ere bazegok: nahikoa azkar mugitzen direnak!». Eskerrak ez zuen Doppler efektua ezagutzen, zeren, bestela, zigarroa izarki batez piztutzen saiatuko zen-eta. Ez dago, ordea, zertaz harritzekorik: inoiz ez zuen oso ongi bereizi Big-Bang fenomenoaren eta Big-Band Jazz Bandaren arteko diferentzia. «Espazioa musikaltasuna duk, motel! Musikaltasuna!», esan ohi zuen konbentzimendu handiz, *nolabaiteko* loturarik egon behar zuelakoan.

[...] MY FRIEND,- Welcome to the Karpathians. I am anxiously expecting you. Sleep well to-night. At three to-morrow the diligence will start for Matxinbenta; a place on it is kept for you. At the Loiola Monastegia my carriage will await you and will bring you to me. I trust that your journey from Baiona has been a happy one, and that you will enjoy your stay in my beautiful land.- Your friend,

«DRAKULA.»

«Joderrr!!», hots egin zuen Joxe Marik eskuetan zuen gutuna behin eta berriro irakurritz. «Ze pedantea den tipo hau. Nor arraio izango da?». Izan ere, hiru urte baziren tankera horretako gutunak jasotzen zituela. Eta ez zekien nor izan ote zitekeen. Hasiera batean, adiskideren bat izango zela uste izan zuen. Baina jadanik adiskiderik ez zuela ohartuta, lagun baino etsai behar zuela izan, deliberatu zuen. «Edo okerrago ere: txororen batek bidaltzen zizkidak. Tira, arriskutsua ez bada...».

Joxe Mari zertxobait asperturik zegoenez, ondoko hiztegiari luzatu zion eskua, eta patuak erabakitako orrialdean ireki zuen. Hitz baten definizioak honela zioen: «Etsamina(tu) du: [...] ikaslearen ezagupen-maila zein den jakiteko frogak jarri: etsaminatu gaituen irakaslea oso zorrotza da». Joxe Marik oihukatu zuen, umore onez: «Bai, hain duk zorrotza denak «suspenditu» dituela, aztertu ordez, etsaminatu hitza erabiltzeagatik!!» — Jo, jo— barre egin zuen. «Eup, purista horrek: ez al deritzok nire buruari zoragarri? Bada nik hireari ez!! Etsaminatu hitza oso-oso ondo dagoelako, etsamina hitza bezalaxe». Eta horrelaxe jarraitu zuen, bere buruarekin hizketan, bere hizkuntz jakituria arrunt, okagarri eta merkeari buruz filosofatzen, orain haserre eta hurrengoan lasai, bere bakardade hartan itzal askoren laguntasuna izango balu bezala. Baina bat-batean isildu eta zera pentsatu zuen bere kabuz: «Bakarrik gelditzean, gauza batez ohartzen gaituk: erotasuna gure baitan dagoen zerbait dela; ez dela *kanpotik-edo* datorren zerbait. *Arima* edo *izpiritua* deitu ohi dugunaren antzeko zerbait ere izan zitekean, gauza berbera ez bada. Edo, zergatik ez ote da izango, ba, oraindik sailkatu gabe dagoen animaliatxoren bat?». Goi mailako gogoeta

horiek eten zituen, ohea oraindik egin gabe zeukan-eta.

Biharamunean beste gutun bat aurkitu zuen gutunontzian. «Berriro ere banpiroa», esan zuen erdi barrez, bestearen idazkera ezagututa. Aurreko gutuna baino laburragoa zen:

«Welcome to my house. Come freely. Go safely. And leave something of the happiness you bring,

DRACULA.

P.D.: I have to be absent for a while. Do not wait for me».

«Erabat jota zegok, dudarik ez», hots egin zuen Joxe Marik. Eta gutuna gorde zuen besteekin batera, karpeta baten barruan. Karpeta horren azalean «DRAKULAREN GUTUNAK» irakur zitekeen.

Zertxobait idazteari ekin zion jarraian:

«Berrogei urteak beterik, Joxe Marik aberria eta aberriko lakuak utzi egin zituen, segituan mendira alde egiteko. Han, izpiritua eta bakardadeaz gozatu ahal izan zuen, bai eta gozatu ere nekerik hartu gabe. Hala ere, aldaketa bat sumatu zion azkenez bere baitakoari; eta goiz batean, egunsenti jaiio berriarekin batera, ohetik jaiki, egunsentiari aurre egin eta esan zion Eguzkiari: «Joder, motel, zelako hepatitis daukan! Hori-hori hago-eta».

Lerro horiek ordenagailuaren monitorean idatzi eta gero, zera hots egin zuen ozenki: «A, Nietzsche, Nietzsche: zergatik egin hidan plagioa?». Kurtsibaz idatzitakoa Nietzscheren Zaratrustaren itzulpena zelako, noski (Zaratrustaren orde, Joxe Mari idatzi bazuen ere).

Gaueko hamaikak ziren eta beheko auzokoak oraindik jarraitzen zuen bere zortzi urteko semea umiliatzen, irainez betetzen eta noizean behin jipoitzen. «Emakume hori kartzelara eramane beharko liakete, tratu txarrak emateaz akusatuta». Zirudenez, umea ez zen batere ona ikastetxean. «Jarrai ezak semea horrela erabiltzen, eta ikusiko duk zer izango den berataz biharko egunean. Medikua izan orde, drogazale, bortxatzaile edo holakoren bat suertatuko zaik...», pentsatu zuen. «Apustu egingo niake», jarraitzen zuen gogoetan, «bere frustrazio pertsonalak ume gizajo horren gainean askatzen ari dela. Hain grabea ote da kamioilari, peoi, langile, dendari edo komertzial ona izatea? Ez al gara denok beharrezko eta ezinbestekoak? Honelako *amatxoek* Hitler bat erditzea nahiago liakete, gizaki zintzo, duin eta apal bat baino». Zizpuru bat botaz, aurrera segitu zuen: «Nazismoa ideologia baino, sentimendua duk; familiaren itzalpean hazitako sentimendua, hain zuzen ere. Eta bihotz handiko (sentimendu handiko) *amatxo maite* batek baino gehiagok ederki zekitek zer den hori. Jakina, honelako kasuetan onena duk errua *gizonari* leporatzea. Zenbait emakume perogrulloren ustez, gizonok omen gaituk gauza txar guztien errudun. Joer! Noiz jabetuko ote dira *femitxismoaz*, guk, geure aldetik, *matxismoaz* jabetu garen bezala?». Zaplasteko-zaparrada bat entzun zen. Gero, haurraren negarra igo zitzaion horma kazkarretik gora. Eta amorrua eman zion noizbait bera ere haurra izan zela gogoratzeak. Gero, ametsetara bota zuen burua.

Joxe Mari ametsetan hasi zen. Jatetxe batean zegoen, zerbitzaria noiz agertuko zain. Tokia ez zen ez handia ez txikia, dimentsio arruntekoa baizik. Halako batean, emakume gazte eta polit bat azaldu zitzaion. Zerbitzari-janzkia zeraman, eta ilehori oparo

eta liluragarria zuen. Eskutitza eskuetan jarri zion menua aukera zezan, eta haren ondoan gelditu zen, zain. Joxe Marik zerbait aukeratu nahi zuen, baina ezinezkoa gertatzen zitzaion, *zerbaitek* eragozten baitzion erabaki bat hartzea. Neskak, ordea, bere ondoan jarraitzen zuen, mugitu gabe. Galtzerdi beltzak janzen zituela ohartu zen; eta gona motz batek ozta-ozta estaltzen zizkion izterrak. Kartari baino, neskaren hankei begiratzen zien betertzaz. Ustekabean, zerbitzariak zapata takoidunak erantzi zituen. Amets *erdi-gastronomiako erdi-erotiko* hura ez zitzaion harrigarria iruditu. Zapataren takoiak luze-luzeak eta punta zorrotz-zorrotzekoak zirela ohartu zen; eta horretaz bai, harri eta zur geratu zen. Beste zerbitzari bat agertu zen, gizonezko bat oraingoan. Ez zitzaion hurbildu ordea; sukaldera omen zeraman korridorean zutik geratu baitzen. Zerbitzariaren burua erabat xelebrea zen... frutaz egina baitzegoen! Mota guztietako frutak ziren: begietan gerezi bana; bi banana belarrietan; iletzat, mahats beltz eta berde andana galanta; masailak melokotoiz, madariz, muxikaz eta haranaz osaturik; eta sudurraren tokian marrubi gorri-gorri, fresko eta eder bat; haren kokots eta eztarri luzean, bikoak, limoi-puskak eta mandarina alaiak ikusten ziren.

Ikuspen hura zela-eta, ondoko neskameaz ahaztu zen. Eta konturatu orduko, neskamea lau hankatan ikusi zuen jatetxeko lurretik, bularralde eder eta oparoa dilin eta dalan, elizetako kanpai-hots eta guzti ateratzen zuela. Begiak ireki zituen. Iratzargailua hoska ari zitzaion —kanpai-hots antzekoa ateratzen zuen iratzargailua—. Zakila, zut eta lirain, izaratik gorantz atera nahian zebilen. «Ah, hau bai animalia basati eta nekagaitza! Ametsetan ere lo-galduta duk hik, ezta?», marmar egin zuen erdi-lotan oraindik.

Gutunontzian eskutitz bat zigilu eta guzti topatu zuen. Gonbidapena zen eta horrela zioen:

*Euskal Astronauten Lehendakaritzak,
Martitzen Garapenerako Sailburuak
eta Bizitza Estralurtarren
aldeko Euskal Erakundearen
Batzordeburuak*

__ KAIXO!! __

esaten dizu, eta atsegin handiz helarazten dizu «Martitzen dago nire bihotza» kanta-liburua, bertako informazioa argigarri eta interesgarria irudituko zaizulakoan.

Maribi Ilargoitia Baratxurrietak dizun begirunea aitortzen dizu, bide batez.

Kalifornia, 1994ko irailean.

BEEEeee!! egin zuen Joxe Marik, eta segituan oihukatu zuen, liluraz: «Joder, eta sosik ez zidatek eskatzen!».

Gero irakurketa zientifikoetan murgildu zen.

«*Lepidodactylus lugubris* izeneko gekoa arrik gabe ugaltzen da. [...] Emeak beraz, arrautzak erruten ditu ernaldu beharrik gabe, kromosoma arrak bere barruan dauzkalako».

«Joder!», hots egin zuen Joxe Marik, «Emakume batek baino gehiagok nahi liake arraintxo horren tokian egotea. Pijo baietz!». Gero, bi-hiru milioi emakumek irakurtzen ohi dituzten horietako «bihotzeko» aldizkari bati luzatu zion eskua. «Ah, noiz iritsiko den emakume berria!», oihukatu zuen alditxo bat pasatua Joxe Marik. Eta aldizkaria balkoitik behera bota zuen.

«Jainkoak ez dik dadoetan jokatzeko», irakurri zuen ozenki Joxe Marik. Einstein-en esaldi ospetsua zen, jakina. «Bada orduan bingoan jokatuko zian!», gaineratu zuen bere kasa. Izan ere, Jose Marik izugarri maite zuen gogoeta zientifikoetatik abiatutako gogoeta sasi-zientifikoak —nolabait deitzeko— asmatzea. Horrek dibertitu egiten zuen-eta. Bestalde, han-hemen barreiatuiko pentsamenduetan halako bide bat ere aurkitzen zuen serioak ziren gauzez barre egiteko. Zientifikorik gehienek, ordea, atseginik handiena hartuko zuten halako apo bat euren eskuez hiltzen. Dударik ez.

Une hartan argirik gabe geratu zen, bonbilla funditu zen-eta. «Ai, nire fotoi gixajoa!», hots egin zuen. Eta segidan: «Itxoin! Nola dakit nik fotoia *arra* dela, eta ez *emea*? Eing? Ze, emea izango balitz, *nire fotoi gaxoa* esan beharko niake». Pentsaketan murgildu zen, eta buruari hatz egin zion. «Tira», zizpuratu zuen, «ziurgabetasunaren printzipioa aplikatu beharko diat kasu honetan ere».

Bonbilla aldatzea erabaki zuen. *Lanari* ekin baino lehen, ordea, etxeko argindarra deskonektatu ala ez duda-mudatan ibili zen. Azkenik, arrisku aurrean kikiltzen direnez marmarka eta gaizki esaka, bere buruari bihotza eman eta Bonbilla aldatzen hasi zen. «Gainera, zer naiz ni, neure oinarritzko partikulen multzoa baizik? Eing? Eing? Hik ez duk arrautza frijitu batek baino gehiago balio, motel! Kiskaltzen bahaiz, hi lasai. Norbaitek lurperatuko hau eta. Dena dela», erantsi zuen une hartako bakarriketa bukatutzat emanez, «hobe neutroi batekin topo egitea, protoi batekin baino. Hala biz!».

«Zeren», jarraitu zuen arrazonatzen, «demagun une batez ni partikula bat naizela. Zer gertatuko litzaidake nire antipartikula agertuko balitz?». Galderari erantzun baino lehen, sukaldetik zetorren labezomorroaren patua erabakita utzi zuen zapatilakada batez. «Ba labezomorro honi gertatu zaiona gertatuko litzaidakek neuri ere. Fisika hutsa duk, motel. Fi-si-ka hu-tsa!». Labezomorroa espatulaz jaso eta lorontzi batean lurperatu zuen, balkoian. «Hurrengo udaberrian, munstro hori, lore polit bat izango haiz. Ez kexatu, beraz».

«Argizarizko ditibabesak, minik gabe titia emateko. Erremina eta bular-arrailak prebenitu eta sendatu egiten dituzte. Eskuz eginak eta oso-osorik naturalak. Interesaturik bazaude, deitu 33 22 11 telefono zenbakira. Etxera eramango dizkizuegu!».

«Ederki», esan zuen Joxe Marik gutunontzitik jasotako propaganda orria zimurtuz, «eta probatzeko ere utziko dizkidazue, ezta?».

Arratsaldeko bostak ziren eta zertxobait aspertuta zegoen. «Agian, espermograma bat egitera joan beharko niake». Gero, espermograma batetik atera daitezkeen datuei buruz pentsatzen hasi zen: «Grafologia antzeko zerbait omen duk. 2000. urteko ijitoek, adibidez, eskua irakurri beharrean, esperma irakurriko zigutek. Bai horixe. Esaera berriak areago berrituko ditiztek. Adibidez, "*esadak zer-nolako esperma duan, eta esango diat nor haizen*". Horrek, gainera, gauza bat frogatuko dik: esaera berriak are berriagoak bihur daitezkeela. Paregabea nauk! Ni pilologoa izan beharko niake. Hala ere, espermograma bat inperpersonal samarra izan zitekek. Zentzu horretan, espermograma bati ahalik eta onurarik gehiena ateratzeko, hona hemen jarraitu beharreko hainbat aholku: 1) grapagailua baldin baduk, sartu oldarrez grapa bat hire zakilaren puntan. Horrek espermak sutan jartzen dizkik, eta espermogramarako txit baliagarria izaten duk. 2) Lokarri batez lotu hire zakilari hamar-hamabi aleko entziklopedia bat eta jarraian bota ale guztiak balkoitik. Bi gauza gerta litezkek, a) zakila brast erauztea, b) zakila luzatu eta luzatzea. Azkenekoa gertatuko balitzaik, eman ezak izena Ginesen liburuan edo Santo Tomasko feriarako gorde. Baina

jarrai dezagun aholku onak ematen, 3) Zakila berotzea; horretarako ere modu ezberdinak dituk, a) mikrouhinen aparatuan sartzea. Egia esan, sistema hau ez zioat inori gomendatzen, den-dena lehertuta geratzen da-eta, b) su ematea. Hau politagoa duk, eta gainera, gori-gori dagoenean, mailu batez kolpeak eman eta nahi duan itxura eman diezaiokek, adibidez, ba... ezpata-itxura. Azkenez, kosmologia astronomikoari jarraikiz, hona hemen beste bide bat —berariaz, xeble samarra berau— espermograma baten kalitatea bermatzeko balioko diguna. Alde txar bakarra dik ordea, Ilargi-eklipse batean egin beharra zegok, ze bestela ez omen duk ongi ateratzen». Une hartan, telefonoak hots egin zuen. Eta Joxe Mari espermogramaz ahaztu egin zen, hirugarren *bidea* adierazi gabe utzita.

Joxe Mari ogibidez idazlea zen, hau da, Joxe Mari frakasatu bat zen. Parasitoen antzera bizi zen, gizarte gero eta pobreago baten bizkar. Hala ere, batzuetan «oso une onak» lortzen zituen.

Izan ere, Joxe Mari bazuen trebeziarik idazlanetan aritzeko (gehienetan txapuzero samarra izaten bazen ere). Esaterako [...]

(to be continued)

*** PELIKULARI BURUZKO KRITIKA

Demagun kritika ustel bat egin behar dudala. Ez naiz zinema-kritikaria. Hala ere, tematu egiten naiz. Ondo da. Hona hemen hasiera posible bat: «Munduko martiztar guztiak: go home!». Baina ez dut horrelakorik egingo. Oraingoz, behintzat, ez. Gauza garrantzitsuagoak ditut-eta publiko ustelari jakinarazteko. Esaterako, ez naiz martiztar ustel horietako bat. Eta horregatixe eskatu behar diot barkamena ikusi berri dudana pelikularen zuzendari izpiritu-puska ustelari. Akojonantea. Izan gaitezen denok martiztarrek. Hori omen da bidea. Pelikulako zuzendari estralurtarraren arabera, egia bakarra horixe da-eta: martiztarra ez bazara, orduan senar ezleial, gezurti eta putasemea zara; baina martiztarra bazara, orduan lagunak, bakea eta porruak izango dituzu. Horra zer esaten diodan nik filmeko zuzendariari (eta ziur nago gustatuko zaiola, noski): «Joan popatik hartzera». Dena den, aitortu behar dut, ezen, teknikaren aldetik filmea ondo eginda dagoela. Gidoia ondo garatuta dago; aktoreek behar adina maila dute (agian ez dituzte euren buruak asko desdoblatu behar izan antzezpenak egiteko); eta erritmo bizia ere ez zaio falta. Ah, zelako martxa, konpai! Nik, ordea, goian esandakoa berresten dut: ez naiz martiztarra, eta harro nago. Eta kopetaraino nago zabortegei ustel horretatik iristen zaizkidan mezuak jasotzeaz: «gizon ona, martiztar petoa»; eta nola ez, «amodiorik onena, Martitzeko neska batekin, neskato». Horra hor pelikula ustel honi darion filosofia ustela. Txakurraren putza, hain zuzen. Gainerakoan, bizitza ustelari buruzko ikuspen gorri bat, irakaspen eta guzti: «martiztarra ez bazara —eta batez ere, martiztartasuna *modus vivendi* bezala onartzeko gai ez bazara—, orduan emakume/gizon-hiltzailea zara (psikopata ustel, nazkagarria)». Ei, zuzendari: kaka zaharra hiretzat. Kopetaraino, pepelerdo horiez guztiez. «Ume aurrera-koiak» eta arlote intelektualak. Denak. *Je ne suis pas chrétien*. Eta bost axola niri Opus Dei erakundeak, bai, baina baita beste sasi-filosofia horiek ere. Ez da ideia usteltxo bat. Esan nahi dut, martiztarrei diodan gorroto ustela. Baina zerikusirik ere ez du ez elizkoi ez atzerakoi ustelekin. Ez dut ezer gaitzesten, ez; bakarrik pixa egiten dut. Besterik ez. Ez dut esaten ezer bekatua denik, zeren-eta *je ne suis pas un homme très pieux*. Egia esan, buruan eta izpirituan kristoren beherakoa izan behar du batek, horrelako ergelkeriak esaten ibiltzeko: «Hau eta hura bekatuak direla; infernuan erreko zarella; e.a. e.a.». Eskrotoraino izorratuta eta erabat lehortuta egon behar duzu, bai, sinplekeria horiekin bazterrak nazkatzen ibiltzeko. Eta batez ere, irudimenik gabeko perbertitu handia izan behar duzu, halako terminologia ustela erabiltzeko. Ei, XXI. mendeari ekiteko zorian gaudela! (Oi! Ene Jainkoa! XXI. mendea! Aurrerakuntza! Zientzia! Oi! Oi!). Tira, nire planteamendu ustela hori guztia baino askoz sinpleagoa (eta ustelagoa) da: flatokeria horiek ematen didaten nazka ez da ideia ustel baten emaitza, ezta alde zurretik egindako arrazonomendu logiko eta ustel baten ondorioa ere. Hori baino askoz ustelagoa da: sentimendu ustel batean oinarrituta dago; nigan dagoen zerbait da; nire biriketean, nire zainetan, nire barrabiletan, nire heste lodi eta meharretan (kilometro piloan zehar!) sortzen den zerbait da. Ideia ustel bat beste ideia ustel baten ordeztzeko aukera dut. Arrazonomendu ustel bat beste arrazonomendu are ustelago batekin ordezkatzeko aukera dut. Baina sentimendu ustel bat, hori ez dago gizonik ez txakurrik munduan suntsi dezakeenik. Neronen gorputzaren barruan sartu ezin naizenez, nigan sortutako sentimendu ustela ere ezin dut nigandik erauzi (eta puntu honetara helduta, martiztar transgenetiko guztiak eskuak igurtzitzen hasiko dira: «[...] bere barruan sortutako sentimendu ustela da... Hortaz, bere barruan sortutako sentimendua dela aitortu du, hau da, gizarteak beharturik iritsi da puntu ustel horretara». Kaka zaharra! Lerdoek onartu nahi ez dutenari aurre egiten diotenean, gizarte zigorzale eta atzerakoi batekin topo egin dutela uste izaten dute, errealitateari buruzko kritika zuzenaren bila oso arduratuta omen dabiltzalako. Baina ekin diezaiogun berriro pelikula ustelaren hariari. Pelikula horretako pertsonaiak jota daude, bai, eldarnioak jota daude, eta erabat

ezgauza dira munduari aurre egiteko, munduari (den bezala) heltzeko. Beti pentsatu izan dut, ezen, mota horretako pertsonak euren garaiko benetako arazoari bizkarra eman diotela: gizarte poliziakoari eta pobreziari eman diote bizkarra. Zeren, arazo horri aurre egingo baliote, orduan ikusiko lukete zer den benetan popatik/brankatik hartzea. Pelikula honetan mundu bat ikusi dut balantza egiten... mikroskopio baten barruan. Pertsonaiarik gehienak horixe dira-eta: bakteria ustelak, gaztaroko herdoilak, frustrazio beltza (aurrean jartzen zaion guztia suntsitzeko modukoak, hori bai). Baina nik badakit zeintzuk diren benetan nire pelikuletako heroia ustelak, eta erretako belaunaldi urbano horrek ez du zerikusirik beraiekin, egon ziur. Ez naiz heroia, hori ere badakit; baina, hala ere, ez pentsa ipurdi/alu ustel baten truke amore emateko prest nagoenik. Zenbait puntu, ordea, merezi du kontuan hartzea. Esaterako, naturaren jaidura jarkiezina, dibertimendua eta jakingura (nerabezaro edota haurtzaroari lotuta...). Eta hori ere amore ematea ez ote den galdetzen dut nire artean. Edozein modutan, garbi daukat zer ez dudan inoiz onartuko: halako bizi-eredu eta kontzeptu bat BIZIMODUtzat hartzea, instituzio bihurtzea. Hori sekula santan ez. Aizu, beste modu batera azalduko dizut. Ni paisaia ustel bati begira nago. Esaterako, itsaso ustelari begira nago. Eta nire agertoki ustel horretatik ikusten dudana ere ikusten dute agertoki beretik itsaso ustelari begira dauden guztiek, itsaso ustela alegia. Denok ikusten dugu, beraz, itsaso ustel berbera; baina bakoitzak bere modu ustelean interpretatzen du. Denok paisaia ustel berbera ikusten badugu ere, bakoitzak bere modu ustelean adierazten du ikusten duena. Orobat ere, mundu ustel honetako lau mila milioi biztanle ustelek paisaia ustel berbera ikusiko balute, lau mila milioi biztanle ustel horiek azalpen ustel desberdina emango lukete paisaia ustel berberari buruz. Hala ere, hona hemen martiztar bat: agertoki berean egon arren, ez du paisaia ustel bera ikusten. Bai, martiztar ustel bat da, hau da, pelikulako protagonista bat da. Biok toki ustel berean bagaude ere, biok itsaso ustel berari begira egon arren, berak ez du paisaia ustel bera ikusten. Kontua ez da berak paisaia hori beste modu ustel batean azaltzen duela, ez; kontua da berak ikusten duela nik ikusten ez dudana paisaia bat (biok toki ustel berean eta paisaia ustel berari begira egon arren). Eta posible al da Ingalaterran bizi izatea ingelesez jakin gabe eta erabat ustelduta ez egotea? Edo Moskun bizi izatea errusieraz jakin gabe eta goitik behera ustelduta ez egotea? Mesedez! Ez izan ustela! Pentsa, une batez, Eusko Jaurjaritzako Hizkuntza Normalkuntzarako Bulegoan sartu zarela euskaraz hitz egiten eta erantzun egin dizutela: «Hitz egin erdaraz, puska ustel horrek». Tira, pentsaezina da, ezta? Bada horixe bera gertatzen da jende arraro guzti horrekin ere: hain arraroak dira, ezen, ezinezkoa baita denontzat baliagarria izan daitekeen hizkuntza baturik aurkitzea, oinarriak eurak ere goitik behera ustelduta daudelako. Aizue, ni ez nintzateke bizi izango Ala Handiaren legearen pean (eta zergatik ez?), ezta Opus Deik gobernaturtako mundu ustel batean ere (hori inolaz ere ez). Eta nazkagarriak deritzet Ku-Kus-Klan bezalako erakunde ustelei. Eta aukera izanez gero, Hegoamerikako herrialde ustel horietako gobernu ustel guztiak leherraraziko nituzke energia nuklearra erabilia, bi aldiz pentsatu gabe. Baina, halaber, nik ez dut martiztarrez jositako mundu ustel batean bizi izan nahi. Eta beharbada, norbaitek esango dit gure mundu ustel hau oso zabal eta oso ajenoa dela (eta baita oso ustela ere); eta ia-ia ezinezkoa dela mundu ustel honetako lau mila milioi gizaki ustelak bat-batean martiztar bihurtzea. Baina azken batean, nire mundu ustel hau beste edozein pertsonaren mundu ustel berbera da, eta benetan txikia eta ñimiñoa (eta ustela) egiten zait: nire familia ustela, lagun ustel gutxi batzuk (zorte ustel pixka batekin), nire hiri ustela, nire portal are ustelagoa... Eta gehixagorik ez.

ESKAINITZA

*(Ustezko idazle eta zalantzarik gabeko
pepelerdoa den ***ri)*

Amaigabeko kaka-pila, erretretorio onkologikoa, txiza bezain horitsua, hipopotamianoa kudunkuloraino, «pisu»ko izkribatzailea (tara: mugarik gabe), Bizkaiko Golkoko bale miresgarria, prosalari puskerzalea bakarrik ez —baina baita kanpai-jole handia ere—, oker jaio eta oker bizi diren horietakoa, Euskal Lintxaturako txingote zornetsua, Judas, iruzurtia, ipurdi-berotzaile hipodermikoa, buruko idorria eta bihotzeko beherakoa ezin-sendatuz-beti-ibiltzen-dena, letretako putatxo merkea, sasi-dena, letra faltsifikatuen itsasoan sare pelagiko ezin debekatuzkoa, Paris gabeko txaperoa, Saliletratu-Burua, pakidermoa, baginetako usain-narratzailea eta edukiera handiko orinal-zurrupatzailea, zeure uzkerkeria lingustikoa atxilotuta zaudena, gero eta zitalagoa zarena, morroi zintzoa, Xastian, «Salba Ditzagun Kretazeoak» lehiaketako urrezko domina, zabor birziklatua, usain txarreko, «On Inor Ez» literarioa, obrarik/penarik/loriarik gabeko idazlea, hizkuntza-errealitateekiko itsu berreskurazina, babo arraioa, borrero zakil-zalea, Pasolini-ren «Kaka-ontzi» pertsonaia eta berriro ere nire txanda, barrabilgabetua, txori malapartatua, «Aluzinator», label-biltzailea, 24 orduko kaka-biltzailea, arrazoirik gabeko harroputza, irizpiderik gabea, idazle burokrata, borreroa ostera ere, Inkisiziokidea, bortxatzailea, «kirats-piloa», enbrioirik gabeko arrautza, egun-ta-gaez harantzago argitua eta ilundua, inpotentea, federik gabeko apaizgaia, kanpai-jolea, aprobechategui, gorila, mafioso, iheslaria, yunkia, oro-suntsitzailea, bufoi literarioa, idiarena-beti-jotzen-zalea, harroputza, ezer-ez-jakilea, lintxatzailea, Nartziso eta Kastua, litxarria, etxerik gabeko puzkerra, infernu guztietatik egotzia (izena emanda daukazu putetxe power-hanianotik izan ezik), Felitziano, Zorioneko, kakati alua, ostikatzailea, pepelerdoa, begirunerik gabea, adarduna, erasotzailea, «Santxo» eta «Pantxo» guztien astoa, txepela, modaz pasatako kapela, tokiz-kanpoan-beti, lintxamendu-kidea, «Gutxi-Montas», kakapirri mukitsua, erremediorik gabeko astakirtena, burmuinez estua (edo itxia), idazle infiltratua, kalitate txarreko literaturzale ziztrina (arratsaldeetan bakarrik), drogazalea, Arteetako lege-hauslea, deabru hankamotzen eta herren kronikoen batxiler salamancarra, ohorezko atal ortopedikoa, kazetaritzako gaizkilea eta literaturgile usatua, «Esamesak» Erresumako Trumoi Kapitaina, «irudimena: 0», baldarra, balakaria, toki-onean-egonda-beti, Santo Tomaseko Erregina, betikoen peoia, gizon mantsoa, analfabeto goi mailako tituluduna, hiperbolikoa, patetikoa eta pailazoa, literatura (suizida)ko azken-azkena, emeritua eta lotsarik gabekoa, lapurra, Euskal Herriari buruz daukazu hizkuntza-ikuspena kataplexiarekin nahastu eta bere horretan jarraitzen duena, kaiku eskizofrenikoa, Elkarteko atezaintsa, eskandalu-sortzailea (interes hutsez, maitasunez baino), zapo-hiztuna, euskaldunberrien «zigorra», pirata prosistikoa, publikorik gabeko komeriantea, sifilitiko biziotsua, pasiboa, torturatzailerik petoa, intelektual atzeratua, (izugarri hutsik dagoen) zure buru horretako amildegian eroria, helbiderik eta telefonorik gabeko txaperoa, Euskal Letra eta Arteetako tumore gaiztoa, berez alderdikoia, kritikari larrugorritua, «Atezaintzako Kazetaritza» Lehiaketako Txapelduna, pentsamenduetako elbarria, mandinga, ahohandia, gehiengoarentzako idazlea, gogaikarria, ikuskizuneko «izarra», harroa eta handiustea, halabeharrezko euskalduna, «Idaz-zomorroa», katalogatugabea, idiota, androgino eta oker-jaioa, «super-vedette», arte-garbitzailea, letretako funtzionaria, «oso-ongi-elikatuta», bere kakaz maiteminduriko platonikoa, euskal poesiarik eta kulturarik degradatuenaren ordezkaria, trauskila eta arrunta (irain okerragorik ezin asmatu idazle batentzat), predestinatua, beleen artetik berpiztua, izugarri izugarria (tamainaz eta izpirituz), espainolkerietara emana, *** n etxetat duzun putetxean «putaseme» izendatua ohore guztiekin, ironia merke-zale amorratua, zorrotza besteekin... eskuzabala zurekin, barrabilik gabeko hasberria

menderen mendetan, brageta aldeko pentsamendu-barrendaria eta lukainka antzeko prosa-sortzailea...

Hori guzti hori, ^{***}, zuri eskaintzen dizut; eta bide batez, baita zure emazteari (puta genetiko handi horri) eta zure seme-alaba makarroiei ere. Izan bedi gure arteko gorroto hau sekulakoa eta betikoa, eta beharrezkoa izanez gero, zabal bedi belaunaldirik belaunaldi faxez, modemez eta zuntz optikoko kablez. Erdi-ipurdiko idazle handinahia, txingotea, hilotz-itxurakoa, herri-kazetaritzako piraina, kontakatilu merkea...

(to be continued)

MATXISTOFELES-EN ORDUA (Infernuan idatzita)

LOLA ETA MADDELEN
(Lehen makro-ipuin futurista)

—Txori-kaka alua! Puta nazkagarria!

Zazpi tiro entzun ziren segituan eta gizonaren gorputza zerraldo erori zen odol-itsaso baten erdian.

—Baina, Lola. Zer egin dion horrenbeste sumintzeko? —galde egin zion Maddelenek bere lagunari. Lolak ez zion berehala erantzun, hil berriari begira gozo-gozo baitzegoen. Pistola presarik gabe berriro kargatu eta azkenik zera esan zion Maddeleni, bere lagun-min maiteari:

—Oh, ezer ez. Bakarrik esan zionat potxingo horretan etzateko, bertatik pasatu nahi ninan-eta zapatak busti gabe. Txakur-sume alua! Emakume bat iraintzen ausartzea ere!

—Pixka bat erreprimitzen ikasi beharko huke, Lola. Bortxaketaz akusatu izan bagenu, askoz jostagarriagoa izango zuan. Neu izango nindunan lekuko. Badakin izugarri gustatzen zaidala ustezko bortxaketen lekukoa izatea.

Maddelenek barre-algara bat jaurti zuen. Lasaitu eta esan zuen:

—Zenbat kabroi alu ez ote ditugu kaiolaratu akusazio faltsuari esker?

Lolak ere barre-algara handia egin zuen; eta seriotasuna berreskuraturik, kontuak ateratzen hasi zen.

—Ikus dezagun —esan zuen pentsakor—. Hire senar-ohiak eta nireak, gure nagusi-ohiak eta amorante-ohiak...

—Zortzi, maitea —eten zion Lolak—. Joan den astekoa kontuan hartuta, zortzi izan ditun orain arte.

—Barka, neska. Hainbeste ditun-eta...

—Gainera —jarraitu zuen oraindik ere Lolak—, kalean topatu dugun pepelerdo-andana ere kontuan hartu beharra zegoen. Askotxo ditun, ezta?

—Milioi piloa kalte-ordainetan! —oihu egin zuen Lolak. Eta barrezka hasi zen kale ilun, huts eta bustiaren erdian. Gizonaren gorpua buruz behera zetzan potxingo handi batean. Poliki-poliki, ura gorrixkatzen zihoan.

—Egia esan, ez dun metodo txarra bapo bizitzeko, kolpe zorririk eman gabe. Gu bai erreginak!

—Ongi dion, maitea. Oso-oso ongi dion. Legeak aldatu zirenetik, gauzak primeran doazkigun. Egia!

Une batez, isilik iraun zuten gorpu geldo eta mutuari begira. Unetxo bat lehenago hura ere gizaki biziduna izan zela pentsatzea gezurra ematen zuen. Gaua eta kalea gorpua bezain geldoak eta mutuak ziren.

—Lehen, Boterea Hartu Aurreko Garaian, uste dinat frogak behar zirela norbait bortxaketaz akusatzeko. Zelako putada!

—Halakorik! Horien ama puta zikina! —garrasi egin zuen Lolak.

Garai haiek gogora ekartzeak amorru bizian jarri zuen Lola. Eta orduan, pistola atera eta berriro ere kargadore osoa hustu zuen lurrean zerraldo zetzan gizonaren aurka. Tirokatu ahala, gorpua astindu egiten zen sorginkeriaz bezala. Hori izugarri gustatzen zitzaion Lolari.

—Tira! Hobe hemendik alde egitea. Eskoadroiren bat ager liteken...

—Eskoadroiren bat? Zer eskoadroi-mota? *Marika*-eskoadroia?
Maddelen eta Lolak barreari eman zioten batera.

—Gainera —erantsi zuen Lolak—, guk arma-baimena zeukanagu; baina gizonek ez. Eta armatuta harrapatuz gero, bazekiten heriotzara zigortuko zaiela.

—Bai, Botereaz Jabetzeko euskarririk garrantzitsuena izan zunan hori. Hala ere, ez zunan erraza izan. Milioika gizon hil behar izan genizkinan...

—Berrehun eta berrogeita hamar milioi, hain zuzen —zehaztu zuen Lolak—. Bigarren Mundu-Gerran baino bost aldiz hildako gehiago eta Hirugarren Mundu-Gerran baino pixka bat gutxiago.

—Emakume asko ere erori zitunan... —gogoratu zuen Maddelenek atsekabeturik.

—Bai —baieztatu zuen Lolak erdeinuz—. Baina merezi izan zian.

Eta hitz horiek esanda, errekararan gelditzen zitzaion bala deskargatu zuen gorpuaren barrabilen aurka. Eta lehengoan bezala, gorpua astindu egin zen, bizirik egotearen sentsazioa zigorrada batez gogoratu izan baliote bezala.

—Goazeman, Lola. Inoiz ez zegon ziur jakiterik... Eta hemen zalaparta handia atera dinagu.

—Lasai, neskato. Ni hemen nagon-eta hi babesteko —erantsi zuen Lolak Maddelenen ipurdian zaplastako bat eman ez eta lepoan milika lodi, luze eta zikina eginez.

Lola eta Maddelen lasterketetarako zirudien automobilera igo eta abiadura osoz alde egin zuten.

—Nora goaz? —galdetu zuen Lolak botila bat koñak ateraz eta zurrutada galanta eginez.

—Nahi badun, *Zoologikora* joan gintezkenan —proposatu zion Maddelenek.

—Hik uste? —zalantza egin zuen Lolak—. Ez zekinat tipo batekin txorta egiteko gogoia dudan...

—Bai, noski. Hiri gehiago gustatzen zain tipoak garbitzea, larrutik jotzea baino —erantzun zion Maddelenek burlati.

—Beno, ados. *Zoologikora* hurbilduko gaitun. Baina tipoarekin biok arituko gaitun larrutan.

—Bikain! —oihu egin zuen Maddelenek, zoriontsu.

LOURDES ETA ITZIAR (Bigarren makro-ipuina)

—Oso erraza dun, Lourdes.

—Ez zekinat, ba... —erantzun zion zalantzati haren ahizpa Itziarrek.

Eguzkiak gogor dirdirutzen zuen itsasoan; hain gogor, dirdirak itsutzen zuen ia-ia.

—Aditu ondo —jarraitu zuen Itziarrek segurtasun handiz—. Negozio biribila dun. Txikitan bortxatu gintuela esango zionagu mundu guztiari. Nik hamabi urte nituela eta hik... hamar urte hituela.

Haizetxo epel eta samur bat mendi aldetik heldu zen, giroa baserriko usainez betez. Batez ere, fruta-lurrin gozoak, zuhaitzetatik zintzilik oraindik, hurbileko nekazaritza-ustiapenen batean...

—Alegia —eten zion Lourdesek—, duela hamar urte. Eta nire kasuan, duela hamabi urte! Ezinezkoa dun. Ez zaigun ongi aterako.

Bidaiari bat plazan agertu zen eta poliki-poliki bere karabana aparkatu zuen. Gero, karabatanatik jaitsi eta nagiak atera zituen pozik. Haren aurpegitik igandeko sentsazioak

hedatzen ziren: ile orraztu gabea, egun gutxiko bizarra... Une hartan, bortxa-seinaleak oro erbesteratuta bezala zeuden paisaia bare hartatik.

—Baietz, tuntuna. Salaketa hemen jarriko dinagu, *** n. Fiskala emakumea dun, baita epailea ere. Irabazita zegoen, neska. Epaitegian salaketa egin besterik ez dinagu egin behar, eta ondasun guztiak gureak izango ditun. Gainera, kazetarien laguntza izango dinagu. Badakin. Hainbeste urteko zigorra jarriko zioten, bizitza osoa kartzelan pasatu beharko din ia-ia. Eta noizbait aterako balitz ere, ordurako oso urrun egongo gaitun. Oso-oso urrun, bai. Eta egun hori heltzen denerako, bera nahiko suntsituta egongo dun, eta ez dinat uste alferrikako mendekuetan saiatzeko gogorik batere geratuko zaionik.

Bi emakumeak gelditasun batean zeuden, bien artean halako txoko sekretu bat egongo balitz bezala.

—Baina, horrela... Frogarik gabe? Nahikoa al da bortxatu gaituela esatearekin eta besterik gabe zigortuko dute? Inongo frogarik gabe? Gure lekukotasunarekin bakar-bakarrik?

Airea galdera zorrotzez bete zen. Oraingoan, hurbileko pinudiak bat egin zuen itsas aldeko lurrinekin. Giroan poztasun adierazkaitz bat zegoen, ideia tinko bat paisaje berde eta urdinean korapilatu izan balitz bezala.

—Heuk esan dun. Ez zegoen froga-beharrik. Nahikoa dun gure aitormenarekin. Justizia-Auzitegian, emakume-hitzak gizon-hitzak baino gehiago balio din. Behintzat, honelako kontuetan. Negar eta negar ari izan behar izan dinagu lortu arte, baina... badakin. Gizonak sentimental hutsak ditun.

Itziarrek barre isekari bat jaurti zuen.

—Hala ere, beldur naun... Eta zerbait gaizki ateratzen bazaigu? Eta berehala kartzelaratzan ez badute? Joxe Anjelek mendekua hartu nahi izango din...

—Joxe Anjelek ez zeukan barrabilik —ihardetsi zion Lourdesek labur.

Lourdesek zigorro bat atera zuen; baina poxpolua piztu baino lehen, unetxo batez itxaron zuen. Itsasoari begiratu zion eta segundo amaigabe batez bere buruaz ahaztu zen.

—Baina eskopeta dik —erantzun zuen Itziarrek irriz eta kafe kikara ezpainetara eramanez.

Lourdesek beste barre-algara bat bota zuen.

Hodei-puska andana bat zerua zeharkatzen ari zen elkarri jarraika.

—Utzi eskopetaren arazoa nire kontu. Garrantzitsuena dun aitormen berbera egitea biok. Ezin gaitun kontraesanetan erori. Hori dun-eta garrantzitsuena.

Ahizpari entzun ahala, Itziarrek bere oinetakoen puntari begiratzen zion. Esna egon arren, bazirudien ametsetan zegoela. Une batez, zentzurik gabeko ideia hura bertan behera uztea pentsatu zuen. Baina Itziar oso emakume pasiboa zen, eta ez zekien aurka egiten. Lourdesek halako botere bat izan zuen haren gainean beti... ia-ia botere despota dei zitekeena. Joxe Anjel, ordea, anaia nagusia zen. Haien artean adin-tarte handiegia zegoen eta ez zuten inoiz benetako senide-harremanik izan.

—Ongi, ados nagon —esan zuen lehor.

Basauriko kartzelan, haizea basati sartzen da presoek pentsamenduetan eta bakardadean. Presoen artean Joxe Anjel izeneko bat dago. Esaten dutenez, ihes egin nahi ez duen preso bakarra da. Haren begiradak zoramenetik hurbileko zerbait du. Hala ere, ametsetako begirada horretan, mugimendu urrun eta geldoetan, kemena eta indarra ere islatzen dira (babesleku bat aurkitu izan balu bezala). Hogeita hamar urteko kartzela-zigorra ilusio edo saria bezalakoa da, haren gizatasun aldatuaren trukean. Batzuetan,

gorrotoa dela-eta, lehertzer a doala iruditzen zaio. Gorrotoa ukigarria izan zitekeenik ez zekien. Eta horrelakoetan, arnasartzen jarraitzeko ez dela gai izango eta itota hilko dela pentsatzen du. Baina ez du hil nahi. Esanahi bat falta zaio. Azken esanahi bat falta zaio bere bizitzari zentzu bat emateko: mendekua. Eta bat-batean beldur da, mendekua hartzeko aukerarik ez ote duen izango. Eta orduan, kamainan etzan, aurpegia atzaparkatu eta amorrus eta minez negar egiten du, zeldakideak gehiago agoantatu-ez eta konortea galtzeraino jipoitu egiten duen arte. «Bortxatzaile alua!» entzuten du ia-ia konortea galduta. Hiltzaileak, lapurrak, bahitzaileak, heroina-trafikatzaileak eta txulo-putak askoz hobeto sentitzen dira, ustezko bortxatzailea mesprezatu, jipoitu eta bortxatu ondoren (gizarte-losintxariak beti prest, agintzen dutenen ipurdia lamikatzeke). Zeren kartzela gizarte bezalakoa da.

Beste haize-bolada batek kartzelako korridoreak zeharkatzen ditu grinaz. Gizonak, nagi, lotan daude beren sentsualtasunaren erdian. Bizitza zikinaren atarian, duintasunik ez daukanari tokatu zaio jai-egitarauari buruzko lehen zirriborroak... idatziz jartzea.

EMAKUME DIBORTZIATUA (Hirugarren makro-ipuina)

—Bada bai, maitea. Ez dakin zeinen ongi atera zaidan dibortzioa.

Luisa hizketan ari zen telefonoz Pilar adiskidearekin. Ustekabea, haize-bolada batek leihoa jo eta horrek ateratako zaratak izua eragin zion Luisari.

—Hara! Zelako sustoa! Itxoin, laztana. Leihoa ixtera noan. Haizea altxatu dun eta.

Egongelako garbitasuna hain zen orbangabea, ezen, egongela baino, santutegia baitzirudien. Luisak egongela zeharkatu, leihoa itxi, eta egongelatxoaren itxura ezin txukunagoari begira gelditu zen pozik eta harro. Ia-ia lerdeak zerizkion *handitasun* haren aurrean: zur bikaineko armairu bat berniz ilun eta dirdiratsu batez amaituta —oso «txik»—, ekialdeko tapiz zoragarria —auskalo nork ehunduta!—, erdiko mahai garesti bat zilar eta urrezko apaindurekin, koadro ikusgarriak baina balio artistikorik gabeak, hamaikatxo apaingarri han-hemen barreiatuta, azken modaren araberrako zutikako lanparak, marka oneko telebista, musika-tresna on-ona...

—Tira. Konponduta. Susto handia eman didan, aizan. Une batez, nire senarra zela pentsatu dinat. Badakin, mendeku bila edo... Egia esan, ez ninduken harrituko. Ja, ja. Txakurrik gabe utzi dinat eta. Etxea berea zunan, baina justizia lagun kendu egin zionat. Eta orobat ere seme-alabak eta soldataren %80. Ja, ja! Orain ikasle-garrietan bezala bizi dun.

Pilarren atarira automobil bat iritsi, bigarren lerroan aparkatu eta gabardinaz jantzitako gizon bat jaitsi da automobiletik. Jantziko lepoa altxatuta duenez, ia-ia ez zaio aurpegia ikusten. Une batez, haren begiek dirdira egin dute kaleko argi artifizialaren pean. Zalantza egin ondoren, atarira hurbildu eta atea ireki du arazo handirik gabe. Barrura sartu baino lehen, ordea, zalantza egin du berriro ere. Baina azkenik, portalean barrena jo eta barruko ilunean murgildu da.

—Gainera, lantokian soldata igo zidaten berriz. Ez zekinat zer egin hainbeste dirurekin! Udan, uste dinat itsas-ibilaldirtxo bat egingo dudala Karibeko kostaldetik. Agian, postaldirtxo bat bidaliko zionat nire «ohiari» irlatxoren batetik. Ja, ja.

Gizona eskailerako lehen harmailetatik igotzen hasi da presa handirik gabe. Ez du argia piztu beharrik izan. Bidea ongi ezagutzen du (harmaila horietatik mila aldiz igo eta jaitsi izan balitz bezala). Igogailuko ate aurrera iristean, barrura sartzeko keinua egin baina,

azken momentuan, iritziz aldatu eta eskaileretatik jarraitzea erabaki du. Portal osoa erabateko ilunean dago. Iluntasun fisiko, solidoa dela esan zitekeen. Poliki-poliki igotzen hasi da, kontu handiz, eraikin lasaia murgilduta dagoen isiltasun sakratua ez haustearren.

—Ea nola egin dudan? Oso erraz: legeaz baliatuta. Bai, bazekinat ez dela zuzena. Baina, nori axola dio horrek? Nire aldeko epaia eman zuen emakume epaileari ere ez dinat uste asko axola zionik. Ja, ja! Ziurraski, berak ere egingo zionan antzekorik. Edo, behintzat, bazekin horrela egiteko aukera duela, beharrezkoa balitzaio... Bai, arrazoi dun. Dibortzioaren legea zaharrituta eta garaitik kanpo zegoen; ez zetorren bat gaurko egunetako errealitatearekin. Lehen, gizonak bakarrik lan egiten zuenean, ondasun gehienak haren izenean egoten zirenean, ba gauza normala zunan horrelako legeak existitzea: gizonak bere familia abandonatuz gero, miseria gorrian gelditzen baitziren emaztea eta seme-alabak. Beraz, justiziak baliabide bat edo beste asmatu behar izan zian, hori horrela izan ez zedin. Bat-batean, eskailerako argia piztu eta gizona hortxe gelditu da, bihotz-taupadak ia-ia entzuten zaizkiola. Igogailuko atea ireki eta segituan itxi egin du. Azkar-azkar, gizonak eskailburura jo du bere burua ezkutatzera. Baina igogailuak aurrera segitu eta goiko pisuetako batean gelditu da. Lasaitasuna berreskuratu eta argia itzali arte itxarotea erabaki du. Hirugarrenean dago. «Bi pisu gehiago», esan du bere artean. Bi minututxo buruan, argia itzali denean, igoera misterioitsu eta larriari ekin dio berriro.

—Hala dun, bai. Garaiak aldatu ditun. Jada ez gaitun bizi XIX. mendean. Legeak, ordea, betikoak izaten jarraitzen din. Eta ni pozik gainera, horretaz aprobetxaturik nire senar pepelerdoa sosik gabe uzteko aukera izan dudalako. Argi eta garbi esan zionan: nirekin ala miseriarekin. Ja, ja. Eta bigarrena aukeratu zinan. Ja, ja!

Bosgarrenera iristean, "B" letraren aurrean gelditu da. Eskailerako usaina ezagun zaio. Gizonak poltsikotik giltza bat atera du eta kontu handiz sarrailan sartu. Pentsatu bezala, giltza ez da barrura sartu. «Sarraila aldatu dik», esaten du bere artean. Eskailburura atzera egin eta bertan eseri da, aspalditxotik buruan dabilkion kontuari buruz beste behin hausnartzeko. Baina denbora luzeegia pasatu du hausnartu eta gogoeta egiten. Orain ez dago bueltarik. Gaua da. *Bere* portalean dago; *bere* etxeko atearen aurrean dago; *bere* eskailburuan eserita dago. Ezin da berean bere giltzaz sartu. Bai, luzaroege ari izan da gogoeta egiten. Bi aukera ditu. Bata, txirrina jotzea da. Kasu horretan, emazteak ireki beharko dio atea. Baina ireki baino lehen, behatxulotik begiratuko du. Eta bera dela ikustean, ez dio atea irekiko eta poliziari deituko dio gainera. Beste aukera badaki zein den. Eta aurrera jarraitzeko prest dagoenez, poliki-poliki zutik jarri eta gabardina azpitik objektu ilun eta luze bat atera du. Ehiza-eskopeta da, errepikagailuduna.

—Berariaz, ez dakin zeinen ongi dabilen ohean Joxelin. Badakin, langabezian bi urte daraman mutiko lirain hori. Atzo, hiriko jatetxe on batera gonbidatu eta segituan ohean sartu ninan. Oso garesti atera al zitzaidan? Beno, nire senar-ohiak ordaintzen zian. Eta hi, zer? Ez dun inoiz espabilatu behar ala?

Bat-batean, eskaileran bi tiro entzun dira eta ateko sarraila hamaika puskatan lehertu da. Ostiko pare bat emanda, atea zabaldu da paperezkoa balitz bezala. Gizonak korridorea zeharkatu eta egongelara jo du zango luzean, egongela baita etxean argizatuta dagoen gela bakarra. Luisa telefonoa eskuan dago oraindik. Izaturik begiratu dio. Badaki zer gertatzera doan, eta jakin badaki jada ezin duela ezer egin ekintza hori eragozteko. Luisak begiak itxi ditu; eta gizonak behin, bitan, hirutan egin du tiro. Gero, beste tiro bat. Eta beste bat. Eta beste bat. Errekamarak «klik» egin duen arte. Kito. Kargadorea hutsik dago. Akabo. Egin egin du. «Eta orain», esaten du gizonak gorrotoz, «erosi zeruan toki bat nire soldatarekin. Eta ez ahaztu etxea ere eramatea, badaezpada ere; igoal ez zain gustatuko-eta aurrerantzeko hire bizilekua!», erantsi du amorrazioz. Gero, telefono-entzungailuari erreparatu, lurretik jaso eta bere tokian utzi du.

Epaiketa-egunean, emakume-talde batek manifestazioa egin zuen auzitegiaren aurrean. Zigorrik handiena eskatzen zuten hiltzailearentzat.

DIARIOA (365 egun)

Martak Diarioa itzuli dit. Hitz gutxikoa izan da, gehienetan bezala.

—Ondo dago.

Nik soslai begiratu diot, zerbaiten errudun banintz bezala, lotsa apur batez.

—Ziur zaude...?

Berak irri egin du, niri begiratu gabe. Irri horretan herabetasuna eta ausartasuna ikusi ditut islaturik. Pittin bat beldur ere ez ote zen iruditu zait, baina berehala baztertu dut ideia hori (Martak konfiantza osoa du nigan).

—Orduan, gaurtik aurrera hasiko al gara...?

Oraingoan ere, galdera airean utzi dut. Eta Martak irri egin du berriro ere. Buruaz baietza eman dit.

—Ondo pasatuko dugu —erantsi du berotasun handiegirik gabe. Marta horrelakoa da-eta: ez du inoiz berotasun handirik erakusten ezerekiko. Baina horrek ez du ezer esan nahi.

Diarioa lehen orrian ireki eta mahai gainean utzi dut.

—Zatoz —eskatu diot eztitasunez—. Has gaitezen.

Urtarrilak 1

Materiala: ezer berezirik ez.

Gaia: aho-isurtzea.

Jarrera: belauniko.

Arropa: ezer berezirik ez.

Marta, lurrean belauniko, zutik nagoen tokirantz dator. Laztandu egin dut, batez ere bi bularretan. Baina oraindik ez diot arroparik kendu.

—Zutik, mesedez.

Haren atorra erantzeko aprobetxatu dut. Gero, zapatak erantzeko keinua egin diot. Ez darama galtzerdirik. Belauniko berriro. Bularretakoa eta gona besterik ez du soinean. Gelatik katuka ibili behar du eta berak hala egin du, presarik gabe, neurriz. Nigana itzuli eta gelditu da.

Belauniko berriro.

Bularretakoaren txanda da. Gainontzekoa utzi diot. Gero, zakila atera eta puntta jarri diot ezpainen erdian. Baina ezpainak itxita dauzka oraindik.

—Ez duzu gelditu behar nik esan arte, ados?

Horretan ari den bitartean, batzuetan begiak altxatzen ditu nigana eta beste batzuetan itxi egiten ditu edo beherantz jaitsi. Zakila ahotik atera eta esku batekin gogor heldu diot, isur ez nadin. Berak mihia eskaini dit eta nik zenbait tanta lodi eta zuri isuri dizkiot bertan. Tantak laster desagertu dira Martaren aho barrura. Eta irenstean atera duen zaratatxoa entzun dut, hazi-tantak eztarritik behera labainduta. Mihia eskaini dit berriro eta nik beste tanta zuri batzuk isuri dizkiot toki berean. Eta horiek ere begi-itxi batean desagertu dira. Gauza bera egin dugu beste zenbait aldiz, Martaren mihi arrosa eta zoragarrian zer isurtzekorik izan ez dudana arte.

Gero, lurrean amodioa egin dugu eta Martak betiko moduan iritsi da orgasmora: isilik, zuhur, ia hasperenik gabe... Dar-dar txiki batek gorputza zeharkatu dio; eta orduan, begiak zabaldu ditu.

Alditxo baten barruan, galde egin diot:

—Ez zara haserre...?

—Ez naiz inoiz haserretuko gauza hauengatik —erantzun dit Martak—. Egun batean, sentsualtasunez ez duzula jokatzeko ikusten badut, orduan bai, haserretu egingo naiz. Eta egun horrez geroztik, ez dizut utziko horretan gehiago jolasten. Baina hori ez da zure kasua. Atsegin hutsez egiten duzula badakit. Eta horregatik ez dit axola. Gainera, zer uste duzu? neuk ere ez dudala ondo pasatzen? Ez dakit nola esan... Telebista ikustea baino askoz hobea da. Adrenalina sumatzen dut gorputzean nola igotzen zaidan... Gustatu egiten zait. Errealitateko atea ixtea bezala da, beste ate bat irekitzeko: fantasiakoa. Peter-Panen mundua berreskuratzea bezala ia-ia; helduen neurrira asmatu mundu bat... Gainera, konfiantza osoa dut zuegan. Badakit ez duzula inoiz joko zilegi denaz harantzago.

—Horretaz, ez izan dudarik. Eta edozein modutan —erantsi dut— zure esku dago gure jolasak nahi duzun unean etetea; edota baten bat atsegin ez baduzu, hasieratik bertatik horri uko egitea. Eta egunen batean, gure sexu-jolasak bertan behera uztea erabakiko bazenu, ez pentsa horrek gure arteko harremanetan eraginik izango lukeenik. Nik beti jarraituko dut-eta zurekin, jolasekin edo jolasik gabe. Sexua gustatzen zait, bai, baina ez da nire bizitzako gauzarik garrantzitsuena. Hala ere, sexurik gabe bizi beharko banu, uste dut asko sufrituko nukeela.

Eta halaxe bukatu da gure arteko elkarrizketa. Segituan lotan gelditu gara. Eta biharamunean, Marta unibertsitatera joan da, bertan lan egiten baitu arte-klaseak ematen. Nik, berriz, bulegora joan naiz (argitaletxe apal batean lan egiten dut-eta).

Urtarrilak 2

Materiala: sokak.

Gaia: *bondage*.

Jarrera: zutik.

Arropa: kamisoiak.

Marta bizkarrez jarri dut gelako ate-orriaren aurka. Eskumuturretatik lotu ondoren, besoak gorantz altxatzeko esan diot. Eskumuturretatik lotzen zuen soka-muturra pasatu dut ate-markoaren gainetik eta ate atzeko eskutokian finkatu dut korapiloa. Martak kamisoi garden bat besterik ez darama soinean. Haren gorputza atezuan ikusi nahi dudanez, sokaren korapiloa askatu eta sokatik are gehiago tiratu dut, eta segituan hortxe finkatu korapiloa. Orain, Martak oin-puntetan egon beharra dauka ia. Ohean eseri naiz eta isilik begiratu diot. Emaidza biribila lortu dut. Une horretan, bera baino emakume sentsualagorik ez dago munduan. Barruko arroparik ez du eta gorputz osoa erdikusten zaio zetazko kamisoi arrosakaren zehar. Titi-muturrak tente ageri zaizkio. Minutu batzuk igarota, burua albo baterantz erori zaio nekearen nekez. Harengana joan naiz eta sexua laztandu diot. Laster hezatu eta busti egin zaio. Eta hasperenka hasi da suabe-suabe, pelbisa aurreratzen kordokatzen, dantza erritual bati emanda bezala. Handik gutxira, bere orgasmo horietako bat izan du, lasai, barruko Dar-dar leun batez lagunduta. Dagoen bezala utzi eta ohera itzuli naiz, non eseri naizen hari begira, asezin. Azkenik, ni ere masturbatzen hasi naiz eta atsegin-leherketa bat izan arte ez diot masturbatzeari utzi. Flotaka sentitu naiz, sorginkeria gozoa aienatu den arte. Segituan askatu eta biok etzan gara alfonbra lodian; eta alditxo baten buruan, kafea hartu, kopatxo bat edan, hitz egin, barre egin eta elkar laztandu dugu. Gero, amodioa egin dugu —beti bezala— eta lotan gelditu gara elkarrekin besarkatuta.

Urtarrilak 3

Materiala: ezer berezirik ez.

Gaia: etxeko garbiketa.

Jarrera: ugari.

Arropa: amantala; zerbitzari-jantzia.

Urteko hirugarren egunari ekiteko, etxeko garbiketa erotiko bat antolatu dugu. Horretarako, zerbitzari-jantzi bat erosi dut denda batean. Horrez gain, sukaldetik ibiltzeko amantal arrunt horietako bat ere eskuratu dut, biak erabiltzeko asmoz (ez dakit bietako zeinek kitzikatzen nauen gehiago).

Sinpleenarekin hasi gara, hau da, etxeko amantalarakin. Gorputz erdiko amantala denez, gerritik behera baino ez dio estaltzen gorputza (aurreko aldetik bakarrik); bi xingola ditu, lepo inguruan lotzen direnak, atzetik.

Berehala esan diot arropak erantzi eta amantala janzteko. Amantalak «asteazkena» hitza brodatuta dauka; hori dela-eta, Martak eta biok barre egin dugu, hain zuzen asteazkenean gaudelako. Noski, hori ere ez da kasualitatea izan.

Sukaldean, Martak arropak erantzi ditu eta amantala jantzi du segituan. Lehendabiziko etxeko lana egiten hasi baino lehen, sukaldean gora eta behera paseatzeko eskatu diot. Bular tenteek bazirudien grabitate legeari desafio egiten ziotela. Bikain zegoen, beti bezala.

Apalategi batzuk garbitzeko itxurak egiten dituen bitartean, mahaiaren albo batean eseri naiz ni. Mugimenduak direla-eta, Martaren bi bularrak dantzan ari dira alai. Ipurmasailak biribil eta distiratsu agertzen zaizkio amantal azpitik. Eserleku batera igo denez, lasai asko begiratu ahal izan diot, baita ikusi ere normalean ezkutuan gelditzen diren gorputzeko leku horiek. Bukatzeko, erratza pasatu du. Baina fregoa hartu duenean, unetxo batez geldiarazi dut, amantala erantzi nahi nion eta. Orduan, larru-gorritan gelditu da. Oinetan eroritako amantala jaso ondoren, fregoa pasatu du sukaldeko zorutik. Guztira, 30 minutu inguru uste dut joan zaizkigula, hasi garenetik. Gutxiago, beharbada.

Handik egongelara abiatu gara, zerbitzari-jantzia bertan zegoen-eta. Oso jantzi polita zen eta ez zitzaion ezer falta. Nire kasa, galtzerdi beltz pare bat erantsi dut, ukitu «ausarta» eman nahian. Horrela, gure saioa benetan erotiko eta eraginkorra gertatu zaigu.

Hasteko presarik ez dugu izan; beraz, bost bat minutu igaro dira «lanean» hasi baino lehen. Denboralditxo horretan, xake-joko elektronikoarekin jokaldi supersoniko bat egiteko aprobeztatu dut. Baina galdu egin dut, beti bezala.

Martarengana hurbildu, grinaz musukatu eta zirriak egin dizkiot arropa gainetik. Berak egiten utzi dit.

«Armairuak hauts pixka bat du», iruzkindu diot distraiturik.

Marta garbitzen hasi da. Goiko lekuak garbitzeko, mustuka edo plumero gris batez baliatu da; altzariaren behe-aldeak, belauniko garbitu ditu altzari-garbigarritz bustitako trapu bat erabiliz. Atzetik hurbildu eta bularrak grinaz ferekatu dizkiot. Belauniko zegoenez, titiak uniformearen barruan sumatu ditut tinko lurrerantz. Kexa txiki bat eskapatu zaio, bularraldea gehiegixto estutu diodalako. Apenas ikusten zen orbantxo baten aitzakia, errieta egin diot. Orbana hainbat aldiz milizkatu du; baina desagertzen ez zenez, zerbitzari-jantzia kentzeko eta zurgagailua edo aspiradora pasatzeko esan diot. Hori egin eta gero, egongelako ate ondoan gelditu da, hurrengo jolasaren zain. Eta halaxe joan zaizkigu beste hamar minutu (xake-joko elektronikoa berriro ere garaile!). Porrota dela-eta,

umore txarrez nengoen. Beraz, barruko arropa kendu diot (galtzerdi beltz zoragarriak izan ezik —distira anarkiko ezin kitzikagarriagoa hartzen baitzuten Martaren hanka lirain eta samurretan—) eta belauniko jarri dut. Egongelako zorua zurezkoa da eta distira ateratzen hasi da nik ezer esan gabe.

Bukatu eta gero, zutik jartzeko keinua egin du baina nik eragotzi diot hori egiten. Eta orduan, presarik gabe, gauzak txukun zeuden egiaztatu dut. Bien bitartean, Martak belauniko jarraitzen zuen, zalditxo ñaño eta zoragarri baten moduan.

Aurretik hurbildu eta ilea harrotu diot.

«Ez dago gaizki», esan diot. Eta justu une horretan, biok barrez hasi gara.

Beti bezala, gure gelara joan gara. Eta kafea eta kopatxo bat hartu eta gero, laztanak hasperenak eta sentsazioak nagusi izan dira gure artean.

Urtarrilak 4

Materiala: ezer berezirik ez.

Gaia: eiakulazioa bularraldean.

Jarrera: kokoriko, katuka eta ahoz gora.

Arropa: ezer berezirik ez.

Ohe-ertzean eseri naiz, biluzik. Lurrean kokoriko esertzeko esan diot Martari. Larru-gorritan dago, bi bularrak nire zakilaren pare-parean. Bi tititxoen artean jarri diot zakila eta mugitzen hasi da gora eta behera. Atala bi tititxoen artean estutzen dit bi eskuekin, alboetatik presio eginez. Horrela, haragi samur horietan zakila atxilotuta, berebiziko atsegina hartu dut. Glande edo zakil-mokoa behin eta berriz agertzen zen bi biribiltasunen erditik. Eta minutu batzuen buruan, ahaleginaren poderioz, Martaren larru-azala izerdi-tantaz betetzen hasi da. Oso distira sentsuala zela iruditu zait.

Ariketa bera beste jarrera batean egitea proposatu diot. Ni ohean etzan naiz eta bera katuka jarri da nire gainean, bi bularrak nire zakilaren gainean kulunka. Eta jolasa berriro ere hasi da. Baina oraingoan, mugimendua ez da goitik beherakoa izan, atzetik aurrerakoa baizik. Gainera, zakila ondo estutzeko, neuk egin dut presioa bi tititxoen alboetatik bultza eginez. Zakil mokoa behin eta berriz agertzen ikusi dut, Martaren azal leunak laztanduta. Eta zorabioak sumatu ditut, plazer hutsez.

Gero, bera etzan da ahoz gora eta ni haren gainean igo naiz. Nire «tresna» bi bular tinko eta sendoen artean jarri, ondo estutu eta atzera-aurrera hasi naiz. Baina oraingoan gelditzeko asmorik gabe. Plazer-leherketa hurbil dela sumatu orduko, mugimenduak azkartu ditut zorioneko amaieraren bila.

Esperma-zorrotada lodi eta oparoak Martaren kokotsa asmatu du bete-bete. Hazi apur bat ere iritsi zaio ezpain-txokoraino, eta eztarrian behera irristaka jaitsi da errekatxoa bezala, bularetik eztariraino esperma arrasto bat utziz.

Paperezko esku-zapi batean esperma jaso, belaki busti batekin Marta ondo garbitu eta lurrin pixka bat bota diot gaineratik. Gero, sukaldera joan, kafe on bat prestatu, eta bi pastelxo gozo-gozoak eta masusta-likore pixka bat eraman ditut bandexa batean. Dendena irentsi dugu ohetik altxa gabe. «Aizu», esan diot Martari, «zeinen kalitate oneko suertatu zaigun ohe hau: hainbeste orgasmo eginda ez zaio pitzadurarik bat ere atera oraindik.»

Biok barrez hasi gara; eta jarraian, gauzak bukatu dira Martaren eta bion artean bukatu ohi diren bezala...

Urtarrilak 5

Materiala: krema gozoa.
Gaia: aho-isurtzea.
Jarrera: ugari.
Arropa: ezer berezirik ez.

Txokolatezko pasta. Ze gozoa...! Zakil-mokoa txokolateaz erruz igurtzi eta zain gelditu naiz. Berehala jakin dut zerua nolakoa den, Martaren mihia nire gorputz-atal biziotsua milikatzen hasi baita modu zoragarrian. Itzela izan da! Zerbait esaten entzun diot, «Oso gozo dago», edo antzeko zerbait. Garondoa laztandu eta iletik heldu diot, indarrez, txirikorda bat eginez. Txokolate guztia miazkatu duenean, gelditu eta txokolateaz igurtzi dut zakil-mokoa berriro. Ze gozoa...! Orgiaren zurrunbiloan murgildu gara berriz. Zoratzeko modukoa zen. Eta konturatu ahal izan baino lehen, nire esperma isuri da iturri batetik bezala, geldieztina, zoragarria, presiozko ura bailitzan. Uste dut irensteko denborarik ere ez duela izan, eztarritik behera zuzen-zuzen joan omen zaio, halako indarrez isuri naiz-eta.

Gero, nire txanda izan da. Berak ez zuen nahi, baina ni tematu naiz. Konbentzitu ere egin behar izan dut, ez nuela beragatik egiten, nigatik baizik. Klitoria txokolatez ondo bete eta milizkatzen hasi natzaio txakur bat bezala. Hasiera batean, zurrun zegoela nabaritu dut, plazer hartara ohituta ez balego bezala. Baina laster hasi da gero eta gehiago berotzen... harik eta ohizko hasperenak benetako plazer-oihu bilakatu diren arte. Bere senetik atera da, zalditxo baten modura (nire mihia bera gobernatzen zuen uhal bihurtuta). Aiene sakon eta amaigabe batek amaiera eman dio Martak inoiz izan duen orgasmorik handienari. Aurrerantzean, Marta niri lotuta egongo da nahitaez (nire adiskide hark arrazoi zuen: «Emazte on baten bihotza atxikitzeke, larruan gogotik jotzea bezalakorik ez dago»).

Gauetz, tapizaren gainean egin dugu lo. Gure antzezpen sexual horiek bukatu eta gero, normalean egiten duguna egin gabe gelditu gara lotan. Ordurako hasiak gara gure Diarioari beste izen maitagarriago bat ematen: «365 egun».

Urtarrilak 6

Materiala: kontsolagailua.
Gaia: masturbazioa.
Jarrera: zutik.
Arropa: jarraian azaltzen direnak

Marta nire aurrean zutik zegoen. Gona eskoziar bat janzten zuen eta berde ilun kolorea nagusitzen zitzaion arropan. Jertse gorri eta lodia zeraman soinean; eta azpian, ator zuria —lepoko luze, gogor eta puntakoa—. Galtzerdi zuri-motzak orkatilaraino iristen zitzaizkion, eta bi marrazki biribil eta urdin zituen inguruan, orkatila parean. Janzkerari bukaera emateko, oinetako urdinak zeramatzan, urrezko belarritxo banarekin. Barrutik, kulerotxo zuriak eta kolore bereko bularretako sinplea farfailekin.

Poliki-poliki, biluzten hasi da. Atorrako botoiak askatzeko, denbora behar izan du (botoiak nahiko estu josita zeudenez, ez zen erraza horiek euren zulotxoetatik pasatzea). Girotzeko, soinu ezti eta lasai bat jarri dut. Marta soinuaren erritmoarekin batera mugitzen

hasi da. Aldakak eta gorputza, oro har, batetik bestera kulunkatu ditu, neurria galdu gabe baina, hots, zakarkerietan edota itsuskerietan erori gabe. Arropa erantzten jarraitu du. Oraingoan, gona erortzen utzi du; eta horretarako, gonaren albo batean zegoen xingola batetik tiratu du, gerri parean, zapata eta galtzerdiekin bakarrik gelditu arte. Ez diot aurrera jarraitzen utzi; harengana hurbildu naiz eta klitoria eskuaz laztantzen hasi natzaio, baina kulerotxo farfalduna erantzi gabe, gainetik alegia. Metalezko kontsolagailu bat hartu eta bertan presio egin diot. Kontsolagailuaren punta urre-kolorekoa da, apur bat zorrotzegia agian. Ukitzean hotz dela esan dit. Hainbat aldiz gauza bera egin eta gero, bularretakoa erantzi eta gure jolas nagusiarekin segitu dugu. Kontsolagailu bakarria ez, baina gehiago genituen, eta denak probatu nahi. Martaren bularrak agerian gelditu dira, titi-buruek nire unibertso txikiari apuntatuz, tenteak eta arrosakarak (bi marrubi gozo bailiran). Oinetakoen txanda etorri da, baita gazte-galtzerdiena ere. Eta hantxe zegoen, nire aurrean erdi-biluzik, gorputza soinuarekin batera zabukutzen... Kulerotxotik heldu diot —aluaren paretik— eta nigana tiratu dut. Apur bat kexatu da, nahigabe iletoren batetik ere tiratu omen diodalako. Baina ez diot kasu handirik egin. Ni ohe-ertzean eserita nengoen; eta bera, zutik nire aurrean. Bernak zabaldu dizkiot eta hatzekin kulerotxoaren oihala urratu dut, baina asko ez; zulotxo bat bakarrik, kontsolagailuak hortik pasatu behar zuen-eta. Hasieran, berak ondo jasan ditu erasoak. Baina handik gutxira, indar egiten hasi da, hots, oinak lurretik ez altxatzen saiatu da eraso bakoitzean. Nik indar handixeagoz jarraitu dut eta Marta pixka bat makurtu da, zizpuru eta hasperen artean, eta une horretaz aprobetxatu nahi izan dut haren zilborra musukatu eta miazkatzeko, baina objektu puntaduna zulotxotik sartzen eta ateratzen utzi gabe.

Orgasmoa eragotzi nahian, gelditu egin naiz. Orduan, kulerotxoa urratu diot, erabat. Oraingoan hortzekin egin dut, zulotxo inguruko josturetatik gogor tiratuz. Goma elastikoari ere indarrez tiratu diot, klaska batekin puskatu den arte. Une horretan, Martak oreka galdu eta aurrerrantz erortzeko zorian egon da. Hori eragozteko, kontsolagailua bortxaz sartu behar izan diot barru-barruan, eta ezkerreko bularrari bete-bete heldu diot libre nuen eskuaz.

Hasierako jarreran jarri dut berriro, zutik nire aurrean eta izterrak bereizita. Ohe-ertzean eseri naiz ni. Orain, biluzik zegoen. Kontsolagailuen kaxari begirada bat bota eta beste hainbat kontsolagailu ateratzeko zorian egon naiz, alutxo kitzigarri hartan probatzeko. Baina pentsatu dut gaurkoz nahikoa izan dugula, eta gozokiak beste egun batzuetarako ere gorde behar direla, denak batera irentsi beharrean. Urte bat, bi, hiru genituen...; baita bizitza osoa ere. Elkarrekin bizi ginen eta gustatzen zitzaigun elkarrekin bizitzea. Zoritxarrak bakar-bakarrik ekarriko zigun gure jolas maiteen amaiera. Baina egun horiek urrun ziren oraindik. Beraz, gure adur ona eta gure gogo-egoera ezin hobea aprobetxatu nahi genuen ahalik eta gehien.

Kontsolagailuari goitik behera eragiten jarraitu dut. Eta Martaren arnasa azkartu egiten zela ikusi dudanean, neuk ere azkartu ditut nire mugimenduak, harik-eta izterren dardarak Martaren orgasmoaren berri eman didan arte.

Ohean etzan gara, eta eskuez gauza zoragarriak niri egiten utzi diot. Bera bezala, nire zentzumenen mugara iritsi naiz. Gero, gau horretako saioa bukatutzat eman dugu eta argia itzali dut.

Urtarrilak 7

Materiala: benda, lokarria.

Gaia: *bondage*; aho-isurtzea.

Jarrera: lurean.
Arropa: bat ere ez.

Marta, logelako ate aurrean biluzik, zain dago. «Zatoz» esan diot. Eta berak hala egin du, baina presarik gabe. Nire parera iristean, begira gelditu zait. Haren atzean jarri naiz eta eskumuturrak lotu dizkiot zetazko xingola batekin. Urdin koloreko xingola zen, ilea biltzeko erabili ohi diren horietakoa, uste dut. Korapiloa ez dut ia bat ere estutu. Egia esan, nahi izanez gero, erraz askatuko litzateke laguntzarik gabe. Gorputz osoa laztandu diot. Nahiko bustita zegoela ikusi dudanean, laztanak bertan behera utzi ditut. Martak kexa egin du, gelditu naizelako. Orduan, izterrak elkar जो, bere kasa masturbatzen saiatu da. Baina nik ez diot utzi. Benda bat —benda beltz bat— haren begietan jartzeko garaia zen. Eskuak loturik eta begiak bendaz estalirik, ibilalditxo bat egitera joan gara etxean zehar. Ezbaian zebilen eta batzuetan behaztopa egiten zuen; halako batean, kexu bat eskapatu zaio (dena den, nik arreta handia jarri dut minik txikiena har ez dezan). Logelara itzuli gara berriro. Zakila ahoan sartu diot. Hain zoragarria izan da, ezen, une hori ahalik gehiena luzatzen saiatu naizen. Bien bitartean, Martak eskuak lotuta eta begiak estalita jarraitzen zuen. Etengabe miazkatu dit. Batzuetan masailak puzten zitzaizkion, zakilak aho barrutik bultza eginda. Beste batzuetan, bazirudien zakila irentsi behar zuela; edo eztarritik behera labainduko zitzaiola, hain sakon miazkatzen zuen-eta. Ezin nuen gehiago. Iletik heldu eta mugimenduak azkartu ditut, zakila Martaren ahotik gero eta azkarrago sartu eta ateratzen hasi naiz. Bulartxoak jauzika aritu zaizkio denbora osoan, gora eta behera, ezker eta eskuin. Une horretan, esperma igotzen ari zitzaidala sumatu dut; eta zakila ia-ia haren eztarriraino sartuta neukala, esperma-zorrotada bat isuri diot indar sinestezinaz. Ez naiz zakila ateratzen saiatu ere egin. Barruan sartuta utzi dut eta den-dena isuri diot eztarri-txuloan, azken tantaraino.

Gero, sukaldera korrika joan naiz eta hozkailuan hozten zegoen fruta-irabiakia ekarri diot. Begietako benda kendu eta, eskuak oraindik lotuta zeuzkanenez, edalontzia ezpainetan jarri eta edaten eman diot. «Oso ona», esan du Martak jostaturik. Barre egin dugu. Eskuak askatu baino lehen, luze masturbatu dut, orgasmora iritsi den arte (horretan ari ginen artean, gorputza ohi-ez-bezala bihurrikatu du eta harrituta utzi nauten hasperenak bota ditu).

Urtarrilak 8

Materiala: urrezko bi uztai.
Gaia: apaingarri erotikoak.
Jarrera: ez da behar.
Arropa: ezer berezirik ez.

Gaur, kalera jo dugu gure errito orgiastikoetariko bat egiteko. Bilboko auzo batera joan gara. Helburua, Martaren bi ditiburuetan uztai bana jartzea. Horretarako, bi zulutxo egin behar dira titimuturretan, uztaiak hortik pasatu behar dute-eta. Aurreko astean, Martak eta biok Donostiako harribitxi-denda batean enkargatu genituen urrezko bi uztai. Noski, ez genion inori adierazi zertarako nahi genituen. Dendakoak belarrietan jartzekoak zirela pentsatuko zuen.

Etiketik atera garenean, lepo luzeko jertse bat zeraman soinean Martak. Artile lodiko jertsea zen, ukitzen oso atsegina, kolore bizitakoa eta oso-oso gustu onekoa. Marra hori, urdin eta gorri osaturiko irudi geometrikoak zituen, eta zenbait apaingarri

mahukaburuetan.

Ez bularretakorik ez kulerorik jantzeko esan diot. Frakak estuak eta oso elastikoak ziren. Beraz, ez zen beharrezkoa oso behatzaile ona izatea Martaren barruko biluztasunaz ohartzeko, batez ere pubis aldean.

Bilbora joateko, autopista hartu dugu. Horrela, berehala egon gara horrelako lanak egiten dituzten portalaren aurrean —lokala ez baitzegoen kalean, portal batean baizik—. Eskaileretatik igo eta ate aurrera iritsi gara. Atean ez zegoen plakarik, ezta kartelik ere.

Marta pixka bat urduri zegoen.

Txirrina jo eta neska atsegin batek ireki digu atea. Etxea barrutik bazirudien ondo zegoela; behintzat, ez zegoen ezer tokiz kanpo, ezta susmo txarra eman zezakeen ezer ere. Marta pixka bat lasaitu dela ikusi dut; baina urduritasuna ez zaio guztiz joan. Une horretan, Martaren adrenalina-kopurua maila inbidiagarrian egongo zela pentsatu dut, baina horretaz ez diot ezer iruzkindu.

Gela batera sartu gara, non leiho handi bat baitzegoen. Hala ere, eguna nahiko ilun eta goibela zen eta argi gutxi zegoen. Larruzko bi besaulki zeuden, oso erosoak biak, eta ohatila gurpildun bat izara zuri-zuri batekin estalita. Ondoan, inoiz ikusita ez neuzkan hainbat tresna.

Martak berak azaldu dio neskari zer nahi genuen. Besteak buruaz baietza eman eta ea uztaiak erosi ditugun galde egin digu, berak ere uztaiak salgai dituela eta. Nik uztaiak atera ditut eta barkamena eskatu diot, ez baikenekien berak ere uztaiak saltzen zituenik. Ez kezkatzeko esan dit. Begikoa da neska hau. Uztaiak eman dizkiot. Uztaiak borondatez ireki eta itxi daitezkeela ohartarazi digu, hau da, ez daudela soldatuta. Beraz, jarri eta gero, arazorik gabe atera daitezke. «Egia esan, nik atera ezin daitezkeenak nahiago ditut. Horiek dira benetako *esklabu-uztaiak*.» —*esan digu hark*.

Martari besotik heldu eta ohatila ondora eraman du. Han, arropa erantzi eta etzateko esan dio.

Martak jertsea erantzi du eta berehala agertu dira bere bi tititxoak, bi txori urduri eta alai antzera.

Neskak, klitorian uztairen bat ere jarri nahi al duen galdetu dio Martari. «Oraingoz ez, eskerrik asko», erantzun dio. Eta ia-ia konturatu gabe, frakak ere erantzi ditu, behar-beharrezkoa ez bazen ere. Ohatila gainean etzatera zihoanean, oinetakoak ere erantzeko esan dio. «Izara ez zikintzeko» zuritu du neskak bere burua. Beraz, makurtu eta botin gorrietako lokarriak askatu ondoren, erantzi eta ohatilan etzan da.

Lan garbi, azkar eta minik gabea da. Noiz edo noiz, Martak kexa bat edo beste bota du. Baina ezer larririk ez. Hamabost minutu pasata, egina zegoen.

Marta ohatilan etzanda egon da denbora osoan, larru gorritan. «Ziur al zaude klitorian ez duzula uztairik jarri nahi? Onena da-eta», ekin dio. «Aurrerago agian», erantzun dio Martak maltzur eta jostaturik niri begira. «Minik egiten al du?», galdetu dio jakinguraz. «Ez, ez. Ia ez duzu ezer sentituko. Albo bakoitzean bat jarri dezakegu. Hemen eta hemen» azaldu dio; eta aldi berean, lapitz baten puntaz ukitu dizkio azaldu nahi zituen bi lekuak.

Martak jantzi artean, neskari ordaindu diot.

Alde egin dugunean, oso pozik eta oso berotuta geunden. Dena den, etxera itzuli baino lehen, neguko arratsalde bat ikusten gelditu gara Bilbon: ibili, zerbait hartu, hitz egin...

Donostiara bueltatu eta etxera heldu garenean, pentsa zer egin dugun lehenik...

Materiala: bizar-xafla edo orria.
Gaia: pubiseko ilea kentzea.
Jarrera: horretarako behar direnak.
Arropa: bat ere ez.

Zenbait emakumek arreta handia jartzen diete beren gorputzeko zenbait atal apaintzeari; baina beste atal batzuei, ordea, kasurik bat ere ez diete jartzen ia. Esaterako, zangoetako biloa kentzeko, hileroko depilatzailearengana joaten badira, zergatik ez dira zertxobait gehiago ere arduratzen gorputzeko beste zenbait ataletan hazten zaien biloaz? Martarekin ere antzeko zerbait gertatzen zela ikusi dut eta berari esan diot. Pubis, zango arte eta ipurdi aldeko ilea gehiegitxo hazita egoteaz gain, nahaspilan ere hazita zeukala esan diot. Beraz, uste okerrak eta iritzi ergelak baztertu eta gauzak konpontzea erabaki dugu.

Guraizeak, bizarra kentzeko xafla edo orria, eta apar pixka bat. Besterik ez genuen behar.

Txabusina kentzeko esan diot Martari. Tapiz gainean etzan da eta pubiseko ilearekin hasi gara. Bilo gehiegi zuenez, ile-kopurua kentzeari ekin diot. Eta halaxe, egoki iruditu zaidan arte. Gero, apar pixka bat bota eta kontu handiz moztu dut, triangelutxo eder bat utzi arte. «Bikain», esan diot; «jateko moduan utzi dizut», erantsi dut. Eta biok barre egin dugu.

Gero, zango arteko ile guztia ondo moztu diot; eta beste horrenbeste egin dut ipurdi aldeko ilearekin. Apar asko bota dut eta buru-belarri ari izan naiz nire zeregin horretan, ez bainuen zauririk txikiena ere egin nahi Martaren larru-azal delikatuan.

Bukatutakoan, hura beste gauza bat zen. Martaren biluztasuna izugarri hobetu da. Ipurditxoa leun eta garbi-garbi gelditu zaio. Almendra-olioz igurtzi diot ondo-ondo aurretik eta atzetik, eta itxura are gozoagoa hartu du.

Alutxoari dagokionez, hura bai gozamina begirako! Zehatz-mehatz moztu, soberan zegoen ile guztia kendu eta halako triangelutxo bat utzi diot... Ai ene! Barrura sartzeko gonbidapena, laztantzeko deia, hatzak zuloxoan barneratzeke zirikada... Nik ez dakit zer ote zen hura! Eta horixe egin dut hain zuzen. Eskua sartu eta Martaren sexua laztantzen hasi naiz. Berehala nabaritu dut Martaren kitzikapena... eta nirea.

Urtarrilak 10

Materiala: ezer berezirik ez.
Gaia: ibilaldi erotikoa.
Jarrera: bat ere ez
Arropa: jarraian azaltzen dena.

«ITZAL»
FANTASIAZKO IPUIN BATENTZAKO GIDOIA

(Nahi duenari gonbita egiten diot,
«ipuina» garatu dezan)

- «Itzal» pertsonaiaren bakarrizketa: nor den, jatorria, titulazio akademikoa, e.a.
- «Itzal» pertsonaia bere jabearengandik bereiztea erabaki du, faxista alutzat jotzen duelako.
 - Kalean topatzen dituen itzal guztiekin ligatzen saiatu da, baina alferrik. Burugogorra denez, ekin-da-ekin aritu da, eta ez du amore eman kalabaza-bilduma ederra jaso arte.
 - Itzal eme haietariko batek oihu egiten dio: «Gizon ezdeus alua!»
 - Minduta, «Itzal» putetxe batean sartu da.
 - Emagaldu gazte ugari daude bertan. Baina putarik zaharren eta galduena eseri zaio ondoan.
 - Emagaldua mozkortzen saiatu bada ere, azkenik «Itzal» bakarrik amaitu da mozkorturik. Hortik aurrera, atzekoz aurrera doakio dena.
 - Erreserbadora jaitsi dira. Putari barregura sartu zaio (barre zakar eta gain-beherako bat). «Itzal»ari handik hamaika kilometrora egotea gustatuko litzaioke.
 - «Itzal» urduri jarri eta ez du lortu larruketa behar bezala bukatzea.
 - Mozkor-mozkor eginda kalera joan eta une horretan kalean dabiltzan oinezko guztien itzalekin hasi da liskarrean.
 - Bera ongi erabiltzen dakien emakume baten itzalarekin oheratu eta oraingoan ongi ateratzen zaio.
 - Inpotentziatik sendaturik dagoela ospatzeko, berriro ere mozkortu egiten da.
- Baina gonokozia kutsatu diotela oharturik, atsekabe handia hartu eta beste aitzur bat harrapatu du. Sendagilearengana joan da.
 - Ukabilka, marinel baten itzal legitimoa untzitik bidali eta itsasoratu egin da.
 - Untzian emakumerik ez. Aspertzen hasi da, eta zorabiatzen ere bai. Etengabe, oka beltza botatzen du.
 - Untzia ikatzez dabil. Ikatz-piloan erori eta goitik behera zerri eginda gelditu da.
 - Haserre, masta batera igo eta portura iritsi arte handik ez jaistea erabaki du. Untzitik lehorreratzen da.
 - Amsterdam-en dago. Drogatu, edan eta larrua jotzen du. Baina literaturaz interesatu eta are gehiago zitaldu du bere burua.
- Bera bezalako itzal «errebelde» bat ezagutu eta harekin adiskidetu da.
 - Veneziara doaz elkarrekin. Han, «Itzal-en» lagun berria emakume pianojole gazte batez maitemindu da. Zoritxarrez, emakume gazteak ez dio kasurik egin eta bere buruaz beste egin du (bere burua urkatu egiten du).
- Mendekatzeko, «Itzal-ek» pianistaren itzala bortxatu eta gondola batean ihes egin du.
 - Greziara iristen da gondolaz. Herri horretako analfabetismoaz ikaraturik, hanka egin eta Siziliara doa.
 - Sizilian bere jabe zaharra topatu du, eta horretaz ez da bat ere harritzen.
 - Biak trenez itzuli dira etxera. Lehengo putetxean sartu da. «Ondo» atera zaio eta ospatzeko mozkortu egiten da.
 - Liburu bat idazteari ekiten dio. Baina zeregin horretan untzian baino gehiago aspertu eta bertan behera uzten du idazketa.
 - Denbora pasatzeko, bere hilkutxa egiten hasi da. Hil arte iraungo du bere lan horretan.

- Hilkutxa barruan, denetatik sartu du: telebista, hozkailua, musika-aparatua... (antigoaleko faraonen antzera, baina modernoagoa).
- «Itzal» zahar-zahar eginda badago ere, masturbatzen jarraitzen du.
- Hilzoria eta heriotza. «Itzal» kobardeak bezala hiltzen da, amaiera hurbilaren aurrean izuturik.
- Heriotzaren zurruntasunak «Itzal-en» zakilaren gainean ere badu eraginik, tente-tente gelditu zaio-eta (itzal ilun eta zuzen bat, zeru urdin eta garbirantz apuntatzen duena).

AMAIERA

EUSKAL HERRIKO MAN-GIZON
(Gizon-Emakumeen Arteko Jokabide-Proposamena)
—INFERNUKO GELARIK ILUNENEAN ASMATUA—

Pare bat hitz

«Ipuin» honetaz egileak zera argitu nahi du. Hau ez dela «benetako proposamena», erabat fikziozkoa baizik; fantasia hutsa da, ipuina, literatura. Ez elkarrizketarik ez deskripziorik egon ez badago ere, argitu behar da «helbururik» ere ez dagoela, are gutxiago helburu «apologetikorik». Nahi baduzu, ideologien jatorrira eginiko bidaiatzat har dezakezu; hau da, nola sortzen diren ideologiak, mugimenduak, e.a. Izan ere, antzeko ibilbidea egingo baitute: batek idatziz jarri «gizarte idealtzat» daukana (ideologoa), eta beste batzuek (jarraitzaileek) men egin ideiak praktira eramaten saiatzen direnen aurrean (buruzagien aurrean). Niretzat jolasa bezalakoa izan da. Perbertsioa ere bai. Zeren, nire ustez, literaturak nolabaiteko perbertsioa eskaini/ekarri behar du. Perbertitzen ez gaituen literaturak nahitaez aspertu egiten gaitu. Eta gainera, ondo dago noizean behin biktimei halako makilakada batzuk ere ematea, ahaztu ez daitezen zeinen erraza den biktima izatetik borroa izatera pasatzea. Azkenik, aitortu behar dut —lotsa handirik gabe— gizon frustratua, galtzailea naizela, eta beraz, neuk ere jokatzeko dudala frustratu, galtzaile guztiek jokatzeko duten bezala: nire inguruan dagoenari erasotzen, ahulenaren aurka egiten... Egia esan, nire «mamuak» uxatzeko saioltzat ere jo daiteke ondoko esperpentoa. Baina utz dezagun argi eta garbi hemen ez dagoela ezer emakumeen aurka, besteok adina eskubide dituztela (edo izan beharko lituzketela), eta alderantzizko planteamenduak egiteak garai ilunetara eramango gintuzkeela. Azkenik, onartu beharra dago oso-oso zaila dela desberdintasunean oinarrituriko gizarte batean (gurean, esaterako) berdintasuna lortzea (eta horrek berdintasuna balio du gizonentzat zein emakumeentzat).

1.a. Proposamen Orokorra.-

Funtsean, kirolarien artean zabaldua dagoen izpiritu berbera proposatzen da: gizon eta emakume guztiek kirol-mota guztietan parte hartzea, baina elkarrekin nahastu gabe. Hori da Euskal Herriko Man-gizonek proposatzen duen ereduaren oinarria.

2.) Esparru Judiziala.-

Emakumeek ez dute gizonak epaitzeko eskubiderik; orobat ere ez dute gizonak emakumeak epaitzeko eskubiderik. Emakume epaileek emakumeek egindako delituak epaitu behar dituzte soil-soilik; eta gizon epaileek, gizonak egindakoak bakar-bakarrik. Epaitegi desberdinak bultzatu behar dira, eta eraikin desberdinetan kokatu. Auzitegi profesional eta langile guztiak auzitegiaren sexuaren arabera izan beharko dira. Adibidez, gizon-auzitegiak gizonen osatu (epaileak, abokatuak, fiskalak, funtzionarioak, segurtasunekoak, administrariak, e.a. gizonak soil-soilik izan), eta beste horrenbeste emakume-auzitegiak (epaileak, abokatuak, fiskalak, funtzionarioak, segurtasunekoak, administrariak, e.a. emakumezkoak soil-soilik izan). Auzitegi mistoak ere izango dira, gaur egun indarrean dauden auzitegiak alegia (gizon eta emakume bakoitzak askatasun osoz eta borondatez aukera dezan, auzitegi batean edo bestean epaitua izatea).

3.) Esparru Militarra.-

Emakumeek armadan parte hartzeko eskubidea dute, baita graduazio-mota guztiak lortzeko ere, baina graduazio-eskubide horiek ezin izango dituzte gizonen artean erabili. Halaber, gizonak ere ezin izango dute graduazio-eskubiderik erabili emakumeen artean. Beraz, gizonen teniente batek ezin dio agindurik eman emakume soldadu bati; ezta emakumezko koronel batek graduazio txikiagoko gizon bati (tropa barne). Emakume eta gizon militarrek elkarri zor dioten diziplina-keinu bakarra agur militarra da, eta besterik ez. Gure proposamena da bi sexuetako militarrek kuartel desberdinetan biltzea, hau da, sexu bakoitzaren akuartelamenduak bereiz kokatzea. Horrela, Euskal Herriko Man-gizonen helburu nagusia lortzen baita: emakumeek gizonak adina parte hartzea bizitzako edozein esparrutan, baina elkarrekin nahastu gabe. Kuartel mistoak ere izango dira, gaur egun indarrean dauden kuartelak alegia (gizon eta emakume bakoitzak askatasun osoz eta borondatez aukera dezan, Kuartel batean edo bestean karrera militarra egitea).

Euskal Herriko Man-gizonek elkartasunik handiena helarazi nahi die objektore eta intsumisoei, eta bakeari begira eurek jorratutako bidea biderik onena edo, behintzat, errespetagarriena dela, publikoki aitortu.

4.) Osasun-Esparrua.-

Gizon eta emakume guztiek sexu bereko sendagile baten zerbitzua izateko eskubidea dute, baita ospitaleko pertsonal osoa sexuen arabera izatea ere (erizainak, zeladoreak, administrariak...). Gizonentzako ospitaleak bultzatu behar dira, eta bertan lan egingo duten guztiak gizonentzako izan (sendagileak, erizainak, administrariak, zeladoreak, mantentzen dituzten eta garbiketa-sailekoak, e.a.); emakumeen kasuan ere berdina egin behar da, eurenentzako

ospitaleak eta emakumeak soilik bertan lanean ari izanda (sendagileak, erizainak, administrariak, zeladoreak, mantenimendu eta garbiketa-sailekoak, e.a.). Gaixoari eman-beharreko kalitate-zerbitzua dela-eta, Ospitale desberdinak bultzatzea posible izango ez balitz, ahal den gehiena egin beharko da gaixoez arduratuko diren profesional eta langileak sexu berekoak izan daitezten. Ospitale mistoak ere izango dira, gaur egun indarrean dauden Ospitaleak alegia (gizon eta emakume bakoitzak askatasun osoz eta borondatez aukera dezan, ospitale batera edo bestera joatea).

5.) Kartzela-Esparrua.-

Kartzeletan lan egiten duten guztiak (zuzendariak, funtzionarioak, garbiketa-langileak, sukaldekoak, administrariak, segurtasunekoak, e.a.) presoen sexu berekoak behar dira izan. Beraz, gizonentzako kartzeletan gizonek soilik lan egin beharko dute; eta gauza berbera emakumeen kartzeletan. Presoekin harreman zuzenak dauzkatenak ezin dira homosexual edo lesbiana kolektiboen barruan egon, garbi baitago horrelako funtzionarioek euren botereak ematen dien aukeraz aprobetxatu nahi dutela presoengandik mesede sexualak lortzeko. Kartzela mistoak ere izango dira, gaur egun indarrean dauden kartzelak alegia (gizon eta emakume bakoitzak askatasun osoz eta borondatez aukera dezan, kartzela batean edo beste batean egotea).

Presoen aurka bortxa erabiltzen duten funtzionarioentzat, zigorrik handienak eskatzen ditugure Erakundeak.

6.) Irakaskuntza-Esparrua.-

Sexuen araberako ikastetxe, lizeo eta fakultateak bultzatu behar dira. Behar-beharrezkoa da ikastetxe, lizeo eta fakultateetako pertsonal zerbitzu osoa (irakasleak, administrariak, garbiketa-langileak, segurtasunekoak, e.a.) sexuen araberakoa izatea. Ikastetxe, lizeo eta fakultate mistoak ere izango dira, gaur egun indarrean dauden zentzuak alegia (gizon eta emakume bakoitzak askatasun osoz eta borondatez aukera dezan, zentra batera edo bestera joatea).

7.b.) Polizi Esparrua.-

Kalea zaintzen duten gizon eta emakumeak Kuartel desberdinetan banatu behar dira, hau da, gizonak bakarrik Kuartel batean eta emakumeak euren aldetik beste Kuartel batean. Ahal den neurrian, gaizkilearen sexua kontutan hartuko da, zein poliziarri tokatzen zaion delituaz arduratzea erabakitzeko. Zenbait delitutan, sexu-bereizketak nahiko nabarmenak direnez (esaterako, prostituzioan), polizi ardurak ere horren arabera banatu beharko dira. Kuartel mistoak ere izango dira, gaur egun indarrean dauden kuartelak alegia (gizon eta emakume bakoitzak askatasun osoz eta borondatez aukera dezan, kuartela batean edo beste lan egin edota bietarako batera laguntza eske jotzea).

8.) Dibortzio-Legea.-

Euskal Herriko Man-gizonek dibortzio-legearen aurka borrokatzeko konpromiso tinkoa

hartzen du. Izan ere, dibortzio-legea gaur egun proiektatuta dagoen moduan, oso lege bidegabe, femitxista, zapaltzaile, klasista eta umiliagarria baita.

9.) Seme-Alaben Ardura.-

Puntu hau Dibortzio-legeari lotuta egon arren, bere garrantzia dela-eta bereiz jartzen dugu aztergai. Senar-emazte dibortziatuak elkarrekin konpontzen ez badira, seme-alabekin pasatu-beharreko denbora erdibanatu egin behar da: urteko 365 egunen erdia amarekin; eta beste erdia; aitarekin. Bakoitzari dagozkion egunak errespetatu izan ezik, zigorrak ezarri behar lirateke (egunak galtzea). Eta araua sarritan errespetatu izan ezik, seme-alaben ardura eta pentsioak kendu, lege-hausleari.

10.) Dibortzio-Pentsioak.-

Aurreko atalean azaldutako arrazoi berberetatik, honako puntu hau ere bereiz jartzen dugu aztergai. Bikote batek bere harremanak bertan behera uztea erabakitzen badu, lotura ekonomikoak ere bertan behera gelditu beharko dira. Emazteari edo gizonari epe egokia eman behar zaio lana bilatu eta bizimodu berria antolatzeke. Baina epe hori amaitu eta gero, ez bata ez bestea egongo dira legez behartuta pentsioa pasatzen jarraitzera. Bietako batek baliabide ekonomikorik ez badu, seme-alaben ardura galduko du behin-behinekoz (soldata irabazi arte). Euskal Herriko MAN-gizonen ustez, soldatarik ez irabaztea heldutasunik faltaren seinalea da. Oro har, pentsioei ematen zaien tratamendua arbuizatzen du gure Erakundeak, hau da, emakumeak lan egiten ez badu (etxeoandrea bada) eta arkitekto edo sendagilea bada (eta ondorioz, diru piloa irabazten badu), kasu batean zein bestean, hala ere, tratamendu bera ematea dibortzio-legeari. Legeak gizona zigortzen du sistematikoki; gizonari tokatzen zaio beti diru-piloa ordaintzea, pentsioak pasatzea, e.a. Legeak ez du kontutan hartzen emakumearen egoera soziala eta ekonomikoa zein den. Legea femitxista da. Zenbait kasutan, gizonak jasaten duen umiliazioa, presioa, pobrezia horrebestereinokoa da, ezen, askotan gertatzen baitira erreakzio tragikoak (hilketak barne). Euskal Herriko MAN-gizonek biolentzia-mota guztiak kondenatzen baditu ere, halako gertaerak errazten dituen legea salatzen du gizartearen aurrean. Beraz, Dibortzio-Legea ahalik eta lasterren aldatzea eskatzen du, bi sexuen onerako izango delakoan.

11.) Homosexualitatea eta Lesbianismoa.-

Euskal Herriko MAN-gizonek ez du homosexualitatea eta lesbianismoa onartzen bizimodu bezala, hau da, homosexualez eta lesbianaz osatutako «familiak» ez dira onargarriak MAN Erakundearen iritziz. Intseminazio artifisial-bidez edota zientziak egun eskaintzen duen beste edozein teknika-bidez lesbianek izandako haurdunaldiak aberraziotzat jotzen ditu gure Erakundeak, etikarik eta giza-harrotasunik gabeko zientzia baten emaitza direlarik. Edozein modutan ere, MAN-ek errespetu osoa die gure mundua populatzen duten gizaseme guztiei.

12.) Intseminazio Artifiziala.-

MAN-gizonek ontzat ematen du intseminazio artifiziala, baldin-eta seme-alabarik izan ezin duten bikoteei laguntzeko bada, hau da, modu naturalean haurdun gelditzerik ez daukaten

gizon eta emakumez osaturiko bikoteei laguntzeko baldin bada soilik.

13.c. Proposamen Orokorra.-

MAN Erakundea nazioarteko mugimendua da. Beraz, edozein herri, kultura, hizkuntza eta nazionalitatetako gizonak biltzen ditu. Horregatik aukeratu da MAN hitza (euskaraz «gizon», gazteleraz «hombre», e.a. esan nahi duen hitz ingelesa), ingelesa mundu osoan errotuta dagoen hizkuntza izanik. MAN Erakundea erabat pluralista da: ideologia, nazionalitate eta arraza-mota guztietako gizonak elkartzen ditu. Hona gure oinarrizko helburua: gizonen arteko gatazkak ahal den gehiena saihestea. Hori dela-eta, MANek behar hainbat azpi-erakunde sortzea ontzat ematen du. Adibidez, gaur egun Euskadin «Euskal Herriko MAN-gizon» dago; baina arrazoiren batengatik, MAN-gizonen barruan dauden kideen artean iritzi-desberdintasun handiak (edo txikiak, berdin dio) sortzen badira, plataforma hori utzi eta beste bat sortzeko aukera izango dute. Kasu horretan, beste izen bat asmatu besterik ez litzateke behar, esaterako, MAN-País Vasco, MAN-euskalduna, e.a. Izenak ez du garrantzirik. Benetan garrantzitsua da plataforma guztiak MAN Erakundearen barruan egotea, denek MANen parte hartzea. Bakoitzak ahal duen guztia eman behar du, eztabaida alfer eta antzuak albo batera utzita. MANeko euskaldun abertzaleak MANeko euskaldun ez-abertzaleekin mokoka hasteak ez luke zentzurik izango, gure erakundea ez baita abertzale/ez-abertzaleen plataformarik. Gure Erakundekoek, politikarekin edo ideologiarekin zerikusia duten arazoak baztertu egin behar dituzte euren borondatez. MAN-en barruan sartzeko, nahitaezkoa da printzipio hori hasieratik bertatik onartzea; bestela, Erakundea bera arriskuan legoke. Edozein modutan, Erakundean sor litezkeen auziak-eta konpontzeko, bozketak antolatuko dira ordezkari eta militanteen artean.

14.d.) Proposamen Orokorra.-

Hona hemen Euskal Herriko MAN-gizonen helburua: euren sexu, gizarte-maila edota egoera direla-eta gizonak jasandako diskriminazioak oro salatzea gizartearen aurrean. Horrez gain, gizonen bizi-kalitatea hobetzen eta ahalik eta gehien laguntzen saiatuko da gure Erakundea, haien alde egiteko konpromisoa hartzen duelarik. MAN gogor borrokatuko da deklarazio honetan azaldutako puntu guztien alde. Halaber, agiri honetan adierazitako puntu guztiak lortu arte, tinko borrokatzeko borondatea ere agertzen du.

15.) Bortxaketak eta Eraso Sexualak.-

MAN Erakundeak argi eta garbi arbuiatzen ditu bortxaketak oro, eta ez beza inork dudarik ñimiñoena horretaz izan. Hala ere, epaitegietan, emakume-hitzari gizon-hitzari baino sinesgarritasun handiagoa ematea salatzen dugu. Emakume batek duela hainbat urte bortxatua izan zela salatuz gero, berak salatutako gizonak automatikoki frogatu behar du berak ez zuela horrelakorik egin. MAN Erakundearen iritziak, egoera hori bidegabea da, salatutakoa emakumeak berak frogatuko beharko bailuke. Gaur egun, emakume jakin batek gizon jakin bat hondatu nahi badu (esaterako, arrazoi pertsonalak eta politikoak lortu, kalte-ordain gozo bat eskatu edota heredentzia-puska ederra jasotzeko, e.a.), benetan erraza dauka: urliak bortxatu edo sandiak sexualki eraso diola besterik ez du egin behar. Haren aldeko epaia aldeztetik emanda dago (areago epailea emakumea bada). Euskal Herriko MAN-gizonek egoera hori salatzen du argi eta garbi: horrelakoetan, gizonak legearen

aurrean erruduntzat jotzen dira ia sistematikoki. Horregatik, bortxaketa edo eraso sexuala jaso duen emakumeak, bere salaketa aintzakotzat hartua izan dadin, honako urrats hauek nahitaezkoak izatea eskatzen du MAN Erakundeak: a) gertatu bezain laster, salaketa jartzea; b) ospitale batera jo eta bertan azterketa zehatza egitea; c) posible bada, erasotzailearen ADNaren berri eman dezakeen edozein aztarna —batez ere, esperma-hondarrak— jasotzea; d) lekukoak bilatzea. Oinarrizko baldintza horietako bat bete izan ezik, salaketa automatikoki artxibatzeke eskatzen dugu.

Bortxaketa edo sexu-erasoa salatu duen emakumea gezurretan ari zela argi eta garbi frogatuz gero, Euskal Herriko MAN-gizonek proposatzen du aipaturiko emakumea epaitu eta zigortua izatea, eta ustezko bortxatzaileari ezarri-beharrekoa zen zigorra ezartzea berari (urte eta kalte-ordain bereko zigorra alegia).

Azkenik, MAN Erakundeak dei egiten die kartzeletako arduradunei, eta oro har gizarte osoari, bortxaketak egin dituzten presoak behar den duintasunaz tratatuak izan daitezen. Beharrezkoa izanez gero, beste presoengandik bereizi eta eurentzako galerietan bil ditzatela, eta beste preso nahiz funtzionarioengandik erasorik jasango ez dutela ziurta dezatela. Izan ere, guztiz onartezina da bortxaketak eta sexu-erasoak kartzelan bertan gertatzea, sexu-gaizkileek askotan jasotzen duten tratua eurek emandakoa baino larriagoa izatera iristen delarik.

16.e) Proposamen Orokorra.-

Man Erakundeak elkarbizitza baketsua eta oinarri demokratikoak onartzen dituen gizarteari errespeturik handiena aitortzen dio, eta halako gizarte batean baliabide biolentoak erabiltzearen aldeko proposamenak zeharo baztertu eta gaitzetsi. Oinarri demokratikoak oinarritzat hartuta, hautestontzien bidez bakarrik lortu eta defendatu behar dira gizartearen eta gizabanakoen interesak; eta horrela posible ez balitz, Erakundea desegiteko deia izango litzateke onena. Agiri honetan azaltzen diren postulatuak baliteke gizarteari, oro har, ez interesatzea edota herritar gehienentzat onargarriak ez izatea. Kasu horretan, MANek gizarteari zor zaion errespetua beretzat harturik, Erakundea desegiteko deia egingo luke, askatasun eta balio demokratikoei kalterik ez egitearren.

17.f.) Proposamen Orokorra.-

MAN-gizon Erakundea gizonez bakarrik osatuta dago. Beraz, emakumerik ezin da Erakundearen barruan egon. Dena den, Euskal Herriko MAN-gizonek eskerrona agertu nahi die emakume guztiei, gure mugimenduari helarazitako elkartasun, sinpatia eta sostenguagatik. Horrez gain, beren aldetik borrokatzen jarraitzeko bihotza ere ematen diegu, denontzako mundu zuzenago eta hobe bat lortzea merezi du-eta.

18.) Lan-Esparrua.-

Lanean ari diren emakume eta gizonei eszedentzia hartzeko aukera ematea proposatzen dugu, honako baldintza hauek gogoan harturik: lanean ari diren emakume eta gizonek lanpostua beren senar/emazteari (bizilagunari oro har) helarazteko eskubidea izan behar dute (baldin-eta bikotekidea lanpostu horretan aritzeko behar den bezala prestatuta badago,

noski). Esaterako, lizeo batean lanean ari den emakumeak eszedentzia eskatu nahi badu, emakume horren senarrak edo bizikideak izango du lanpostua betetzeko lehentasuna; edo alderantziz, kontulari lanean ari den gizonak eszedentzia eskatu nahi badu, gizon horren emazteak edo bizikideak izango du lanpostua betetzeko lehentasuna. Esan bezala, kasu batean eta bestean, behar diren baldintzak bete beharko dituzte lanpostu horretan aritu ahal izateko (gure bi adibide hauetan, esaterako, maila eta mota bereko irakasle-titulazioa batak, eta, kontularitza-ikasketak besteak). Eszedentzia behen-behinekoa edo behin-betikoa izan daiteke. Horrek berdin dio. Gainera, eszedentzia nahi adina aldiz elkartrukatzeko eragozpenik ere ez da egon behar. Hau da, momentu jakin batean, lanpostua libre utzi duen gizon/emazteak bere lana berreskuratu nahi badu, ez du horrela egiteko arazorik izan behar. Zentzu horretan, eszedentzia guztiak noizbehinkakoak dira, eta borondatez berreskuragarriak.

Horrez gain, lanpostuak bikotekideen artean banatzea ere proposatzen dugu. Esaterako, emazteak lana baldin badu eta bere senarra lanik gabe badago, emaztearen lanpostua bien artean erdibanatzea proposatzen dugu. Eta alderantziz, gizonak lana baldin badu eta emazteak lanik ez badu, gizonaren lana bien artean erdibanatzea da gure proposamena. Noski, hori bakar-bakarrik egin daiteke bai bata bai bestea lan berean aritzeko baldintza guztiak betetzen dituztenean. Adibidez, kafetegi batean lanean ari den gizonak 8 orduko lana egin beharrean, 4 orduko lana egitea proposatzen dugu; gizon horren bikotekideak, berriz, beste 4 ordu sartu beharko dituelarik. Horrelako kasuetan, soldata %40 igotzeko ere eskatzen dugu, Gobernuko diru-laguntzak direla-medio. Langabezia asko gutxitzeaz gain, bizitza-kalitateak ere izugarri egingo luke gora, astialdiak luzeagoak izanik.

Euskal Herriko MAN-gizonek ezin du gauza bat ulertu: familia edota gizartean, emakume batek lan egitea eta gizon bat langabezian egotea. Horrelako egoerak gertatzen diren bakoitzean, gauza bakarra jartzen da agerian: berdintasunak porrot egin duela; zereginak eta rolak modu ergel eta barregarrian trukatu direla. Euskal Herriko MAN-gizonek ez du inoiz onartuko «desberdintasuna sortzen duen berdintasun-mota hori». Bada garaia langabeziaren aurka benetan borrokatzeko. Eta zentzu horretan, ziur gaude aurreko proposamenak oso emaitza onak eman ditzakeela.

19.g.) Proposamen Orokorra.-

MAN Erakundeak mugimendu feminista askok hartutako jarrera salatzen du, botereko azpiegiturekin bat egin eta laguntzak (dirua) lortzea beste helbururik ez daukatenez gero. Kasu horietan, agerian jartzen da horrelako mugimenduek benetan zer bultzatzen duten: desberdintasuna. Ondorioak ere ikusten hasiak dira: zeregin eta rol tradizionalak aldatu izatea hamaika kasutan. Har dezagun langabezian dagoen eta historian lizentziatua den gizon bat; eta har dezagun orain langabezian ez dagoen eta historian lizentziatua den emakume bat. Emakume hori berdintasunaz harantzago joan da, emakume horrek berdintasuna lortzeaz gain, desberdintasuna ere lortu du, historian lizentziatua den eta langabezian dagoen gizon horrekiko. Horixe da MAN Erakundeak kritikatu eta salatzen duena: feministek aldarrikatutako postulatuek ez digutela berdintasun gehiago ekarri; desberdintasuna banatzera mugatu direla baizik.

20.) Gizarte-Esparrua.-

MAN Erakundeak ez du ezer aberastasunaren aurka, ezta gizarte-klase desberdinen aurka ere. Baina MAN Erakundeak den-dena dauka probeziaren aurka. Bestelako hitzez esanda: MANi ez zaio inporta munduan jende aberatsa izatea; bakar-bakarrik inporta zaio jende pobrea ba ote den. Gizarte ideala ez da aberatsik gabeko gizartea; pobrerik gabeko gizartea baizik. Hori da MAN Erakundeak bultzatzen duen gizartea: mundu guztiak duintasunez bizitzeko aukera eskaintzen duen gizartea alegia. Herritar bakoitzak bere ambizioak garatzeko eskubidea du, ambizio horiek izanak izan: ekonomikoak, artistikoak, kulturalak... sexu-bereizketarik egin gabe.

21.) Politika-Esparrua.-

MAN Erakundeak eredu demokratikoan oinarritutako gizartea ematen du ontzat, eta herriek beren ordezkari politikoak hautestontzietan aukeratu behar dituztela dio. Gizarte demokratikoa bultzatu behar da gehien, gizabanakoen eskubideak gogoan edukita beti. MANek funtsezkoa deritza giza- eta nazio-eskubideak errespetatzeari.

22.) Ekonomia Esparrua.-

Ekonomiari begira, Europako nazioen eredia iruditzen zaigu bultzagarriena. Hala ere, kapitalismo basatia gogor gaitzetsi eta arbuiatzen dugu, planetako baliabideak alferrik hondatzen dituelako eta pobrezia aurkako postulatuak errespetatzen ez dituelako. Elkartasunari eman behar zaio lehentasuna. Nazio, herri eta gizarte-klaseen arteko elkartasuna bultzatzea eta pobrezia mundutik desagertu eta etorkizunik gabeko herriei laguntzea (ongitasun unibertsala lortu arte) funtsezko helburutzat jotzen ditugu. Ekonomia antolatzeari dagokionez, antolamendurik onena sistema desberdinen arteko sinbiosi batetik sortu behar delakoan gaude. Izan ere, ondo dago kapitalismoaren alderik onenak jasotzea, baina beste horrenbeste eginik gizarte sozialisten alderik onenekin ere. Europa, Estatu Batuak, Sobiet Batasuna, Txina, Kuba... Nazio horietan martxan jarritako bi sistemak batu egin behar dira, alderik txarrenak baztertu eta alderik onenak jaso eta batuz, sistema berri bat lortu arte. Lana banatzearen aldeko neurriak ere ontzat ematen ditu MANek. Lur eta etxebizitzaren espekulazioa, aldiz, gogor salatzen du gure Erakundeak (etxebizitzaren arazoa konponduz gero, familia askok aurrera ateratzea lortuko dutela uste baitugu, soldata altua ez irabazi arren). Ondoko neurriak ere ontzat eman-beharrekoak dira: garraio publikoak sustatu, energia aurreztearen aldeko kanpainak egin, kontsumo-gizarteari muga bat jarri, eta labor esanda, beharrezko eta ezinbesteko ondasunei arreta handiagoa ematea (azal gaineko eta luxuzko ondasunen kalterako).

23.h.) Proposamen Orokorra.-

Zineman, telebistan, komunikabideetan hain ugariak diren agerpide-femitxistak oro salatzeak konpromisoa hartzen du Euskal Herriko MAN-gizonek. Halaber, horren beharrean dauden gizonei, dohaineko abokatutza- eta aholkularitza-zerbitzua ere eskaini nahi die. Azkenik, femitxismoa dela-eta, bidegabeko lege, jarrera eta ideologiaren aurka gogor borrokatzeak hitza ere ematen du Euskal Herriko MAN-Gizonek.

24.) Arma-Esparrua.-

Armei dagokien bezainbatean, Euskal Herriko MAN-gizonek ontzat ematen du Estatu Batuetan indarrean dagoen erregimen juridikoa, hau da, edozein herritarrek etxean armak izateko eskubidea du, hori baita bide bakarra gizartearen subiranotasuna bermatzeko. Bestela, gune faktikoek neurritz gairik boterea biltzeko arriskua legoke. Baliteke armekin egindako delitu arruntek gora egitea. Eta hori ez dago ukatzerik. Hala ere, askatasun demokratikoak bermatzeko beste biderik ez dago MANen ustez (jeneral batek estatu-kolpe bat eman baino lehen, bi aldiz pentsatuko bailuke, jakingo balu, ezen, ongi armatutako milioika pertsonak ez dutela ontzat ematen estatu-kolpe hori).